

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abuztuaren 1a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa ea Osasun Departamentuak zuzemenik egin duen arantza bifidoa duten pertsonak gaixo kroniko gisa har daitezten. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Asiako liztorraren presentzia ebaluatze aldera eta bere hedapena eragozte aldera abian jarritako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakitekoa zerk eragin duen baliabide gehiago behar izatea Nafarroaren zorraren interesak ordaintzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, bigarren seme-alabarengatiko eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatuetan eginen den analitika motari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Pejenaute jaunarekin zerikusia duten zenbait galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak bere sorreratik eginiko bilera eta jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, kreditu-kontusail zabalgarrien erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer eginkizun zituen 2007an Nafarroako Kutxa-ko Auditoria Batzordeko kide gisa eta Kontrolerako Batzordeko lehendakari gisa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entzunaldiak bertan behera uzteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakitekoa zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitortpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakitekoa zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitortpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, 2011n eta 2012an entitate pribatuekin eginiko osasun arloko deribazio eta itunen datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Moderna Fundazioari funts publikoak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

- Galdera, 2010-2014 bosturtekoan Estatuari eginiko diru-ekarpena kalkulatzeko metodologiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Nafarroako D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloan erabiltzen diren testuliburuaren zerrendari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, jakitekoa aurreikusita ote dagoen kalteordainik ematea eraikuntza enpresari, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiko lanen etetea dela-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, Navarro Villoslada Institutuan irakaslana ziurtatze aldera egin beharreko presako obrak direla-eta institutuko eskola kontseiluak egindako eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa ea Osasun Departamentuak zuzemenik egin duen arantza bifidoa duten pertsonak gaixo kroniko gisa har daitezen.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa ea Osasun Departamentuak zuzemenik egin duen arantza bifidoa duten pertsonak gaixo kroniko gisa har daitezen, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 13ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera hau egin du, idatziz erantzuteko: "1.- Osasun Departamentuak inolako zuzemenik egin al du arantza bifidoa duten pertsonen gaixo kronikoen izaera aitortzeko? 2.- Ba al dago inolako protokolorik gaixotasun hori duten pertsonen laguntza integrala emateko? Nola kudeatzen da?" (8-12/PES-00155). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Osasun Departamentuak inolako zuzemenik egin al du arantza bifidoa duten pertsonen gaixo kronikoen izaera aitortzeko?


Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak, jada aurreko legegintzaldian, orduko Osasuneko kontseilari María Kutz Peironcely andreak bitartez, Osasun Ministerioari helarazi zion Nafarroako Parlamentutik jasotako eskaera, arantza bifidoa duten pertsonak gaixo kronikotzat hartzea, ministerio horri dagokiolako gaiaren gaineko eskumena, eta ez autonomia erkidegoei.

2. Ba al dago inolako protokolorik gaixotasun hori duten pertsonen laguntza integrala emateko? Nola kudeatzen da?

Arantza bifidoa patologia ezohikoa da eta behera egiten ari da. Bideko Ama Birjina Amahaurren Ospitaleko neonatologia saileko gure datu-basean 14 jaioberririk dute arantza bifidoaren diagnostikoa, eta ez dago inolako diagnostikoa duen jaioberririk ez García Orcoyen Ospitaleko datu-basean ez Reina Sofía Ospitalekoan.

Urtez urte honela banatzen dira kasuak:

Urtea	Kasuen kop.	Urtea	Kasuen kop.
1988	3	2001	1
1989	1	2002	0
1990	0	2003	0
1991	2	2004	0
1992	1	2005	0
1993	0	2006	0
1994	1	2007	0
1995	2	2008	0
1996	0	2009	0
1997	0	2010	1
1998	1	2011	0
1999	0	2012	0
2000	1		



Ez daude taula horretan jasorik Nafarroako ospitale pribatuetan jaiotako haurren kasuak, ezta jaio eta denbora batera diagnostikatutako arantza bifidoen kasuak ere.

2000-2007 bitartean, Haurrentzako Kirurgia Zerbitzuko burua (Leoncio Bento doktorea) eta zerbitzu horretako BFEa (Alberto Pérez doktorea) arantza bifidoa duten haurren gurasoen Nafarroako elkarteko kideei aholkuak eta hitzaldiak ematen aritu ziren. Gero Pediatria Zerbitzuko buruak (Bernola doktorea) hartu zuen bere gain egiteko hori, eta gaur arte jarraitu du.

Gaixo horien gaineko jardun medikoa luzea da eta arlo askotako espezialistak behar dira, gutxienez ere haurren kirurgialariak, neurokirurgialariak, traumatologoak, pediatriak, urologoak, errehabilitatzaileak eta psikologoak.

Patologia ezohikoa da, eta kasuen kopuruak behera egin du (kasu bakarra agertu da azken 11

urteetan), jaio aurreko diagnostiko goiztiarrari esker. Hori dela eta, orain arte ez da esku-hartze sanitarioa protokolizatu beharrik izan. Horrek ez du esan nahi patologia horren jarraipena koordinatu gabe egon denik, baizik eta protokolizazioa tresna bat dela jardunbideak estandarizatzeko ohiko patologietan, jarduteko modu asko daudenean.

Hain urria den patologia horrek aukera ematen du kasuei banan-banan ekiteko.

Aipatutako jarduketa-protokoloak (hura egiteko prest agertu da Haurrentzako Kirurgia Zerbitzuko buru berria) osasun arloko jakintza-eremu anitzeko kolektibo osoaren oniritzia beharko du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Asiako liztorraren presentzia ebaluatze aldera eta bere hedapena eragozte aldera abian jarritako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Asiako liztorraren presentzia ebaluatze aldera eta bere hedapena eragozte aldera abian jarritako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 13ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak Nafarroan Asiako liztorra izateari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12-/PES-00156), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Departamentuak zer neurri jarri ditu abian Asiako liztorraren presentzia ebaluatze aldera eta bere hedapena eragozte aldera?

Nafarroan Asiako liztorra 2010. urtean lehenbiziko aldiz aurkitu zenetik, lan hauek egin dira:

1.- Miaketa lanak Nafarroako iparraldean, Luzaide eta Baztan-Bidasoa ibarren artean. Lan horien bitartez 8 liztor-habi aurkitu ziren 2010ean eta askoz gehiago, 64, 2011n.

2.- Espeziea agertu zela jakinarazi zitzaion Inbasio Biologikoak Aztertze Taldeari (administrazioentzat erreferentziako lantaldea da espezie inbaditzaileei dagokienez), azterketa-erakunde baten bitartez koordinatu zitezten, ahal zen neurrian, izurriari buruzko informazioa eta haren sakanatze-ereduaren zehaztapena.

3.- Detektatutako kasuen jarraipenerako datu-basea ezarri zen, detektatutako kasuei buruzko informazioa biltzeko, denboraren arabera antolatuta.

4.- Detekzio eta suntsitze lanetan, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko teknikariak eta landa-lan-gileak berariaz elkarlanean aritu ziren gehien inplikaturako suhiltzaile-unitatearekin (Mugairiko suhiltzaileak). Lankidetzan horri esker, aurkitutako habi

guztiak deuseztatu ahal izan ziren, askotariko sistemak erabiliz (ura, sua, tiro egitea, habia jaso eta beste toki batean suntsitzea). Gutxi gorabehera 70 aldiz esku hartu zen, hainbat motatako eragiketak eginez.

5.- Horrez gain, koordinazio bilerak egin ziren (informazio eta ekintza bilerak) Nafarroako Erlezainen Elkarteko (APIDENA) perituarekin eta eremuko nahiz elkarteko erlezain ukituekin. APIDENAREN informazio jardunaldirako babes eskaini zen, eta, horrekin batera, sektorearentzako informazio baliagarria eman zen liztorraren ezaugarri ez eta erlauntzak babesteko saiaturako sistemez.

6.- Jada 2012an, eremuan egindako miaketaren emaitza gisa baditugu 80 aipamen gehiago, nahiz eta detekzioen eta esku-hartzeen kopurua handiagoa izan den.

Habiak dagoeneko 500dik gora izan litezkeela uste da. Horren arabera, inguruko lurraldeetan bezain azkar hedatzen ari da espeziea Nafarroan.

Esan beharra dago espezie ezagunetatik haxe dugula inbaditzaile ahaltsuenetako bat, eta izurria geldiarazteko lanek apenas ekarri dutela emaitzarik, batik bat kantauri aldean; izan ere, habi berrien ugartzeak aise gainditu du habiak suntsitzeko dugun ahalmena.

Intsektu honen ziztadak ekar ditzakeen ondorioei dagokienez, uste dugu liztor honek ez duela beste edozein liztorrek ez bezalako osasun arazorik sortzen. Liztor honek eragin ditzakeen larrialdietan, beraz, liztor autoktonoen ziztadetarako lehendik dagoen protokoloari jarraitu behar litzaioke.

Aurreko guztia kontuan izanik, bilerak egin dira APIDENA elkartearekin, Mugairiko suhiltzaile etxeko arduradunarekin eta Lesakako, Berako, Etxalarko eta Igantziko udalekin, egoeraren berri emateko eta nola jokatu behar den azaltzeko, horrela lan koordinatu eta eraginkorra eginen delakoan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, jakitekoa zerk eragin duen baliabide gehiago behar izatea Nafarroaren zorraren interesak ordaintzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zerk eragin duen baliabide gehiago behar izatea Nafarroaren zorraren interesak ordaintzeko. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 13ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzuteko, 2012ko Gastuen Aurrekontuko 112003-11430-3000-951100 kontusailean ("Nafarroaren zorraren interesak") egindako kreditu gehikuntzari buruz (PES-00157). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguakontseilariak:

Maiatzaren 14ko 197/2012 Ebazpenaren bidez 17.344.383,95 euroko kreditu gehikuntza egin zen 112003-11430-3000-951100 kontusailean ("Nafarroako zorraren interesak"), aurrekontuetako kontusail horretan ez zelako behar adina diru esleitu Nafarroaren zorrak eragindako interesak ordaintzeko.

Lehena.

a) Zorpetzea mailegu gisa eta/edo zor gisa gauzatzen da. Bi finantza-tresna horien interesak kontusail banatatik ordaintzen dira: 112003-11430-3000-951100 kontusailetik ordaintzen dira zorraren interesak eta 112003-11430-3101-951100 kontusailetik maileguen interesak.

b) Aurrekontuen proiektua egiten eta onesten denetik urte amaierara bitartean gerta daiteke zorpetze eragiketarako egitea jakin gabe, merkatuetako

gaurko baldintzak direla-eta, zenbat gauzatuko den mailegu gisa eta zenbat zor gisa; era berean, ezin da jakin interes tasa finkoa ala aldakorra izan den, ezta, maileguen kasuan, interesak seihilean behin ala urtean behin likidatuko diren ere. Horregatik guztiagatik ezin dira ongi zehaztu ez hurrengo ekitaldirako interesen zenbateko osoa ez aurrekontuetako bi kontusail horietako bakoitzari esleitu behar zaion zenbatekoa.

c) Parlamentuko galdera honetan azaldu den kasuan bi gauza gertatu dira aurrekontu aldetik garrantzi nabarmena dutenak: lehenik, 2011ko abenduan lau finantzatze-eragiketa egin ziren, hots, hiru mailegu, guztira 28,5 milioi eurokoak, eta zor jaulkipen bat, 54 milioi eurokoa, eta interesak 2012an ordaintzekoak ziren. Baina 2012ko ekitaldian, gainera, zor jaulkipenetako 220 milioi euroetatik 190 milioi ez ziren jaulkipen berrien bidez lortu, baizik eta beste lau jaulkipen biziren ("O-15 zorra," "B-12 zorra," "O-10 zorra" eta "O-7"9 zorra) berririkieraren (retap) bidez, eta horiek 2012ko ekitaldian bertan ordaindu behar zuten kupoia. Hain zuzen ere retap horietatik 2012ko ekitaldian ordaindu beharreko interesak 12 milioi eurotik gorakoak dira.

d) Hori guztia zela-eta, aurrekontuetan zorraren interesak ordaintzeko behar adina diru ez zegoela jakinik, 197/2012 Ebazpenaren bitartez 17.344.383,95 euro gehiago sartu ziren aipatutako kontusailean; hasierako aurrekontuetan zeuden 53.750.000 euroei gehituta, guztira 71.094.383,95 euro dira, hots, galdera aurkeztu den egunera arte ordaindutako interesen eta ekitaldia amaitu arte ordaindu behar den zenbatekoaren arteko batura, bigarren puntuan ageri den bezala.

Bigarrena.

Parlamentuko galdera aurkeztu den egunera arte kontusailean egindako mugimenduak eta 2012. urtea amaitu arte egitekoak diren mugimenduak.

Zor jaulkipena	Ordainketaren eguna	Interesen zenbatekoa
O-15 zorra	2012/02/16	9.687.500,00
O-16 zorra	2012/02/16	7.912.000,00
B-12 zorra	2012/02/23	11.279.160,00
B-13 zorra	2012/03/02	1.837.500,00
O-11 zorra	2012/04/27	4.975.200,00
O-4 zorra	2012/05/11	4.913.273,95
O-17 zorra	2012/06/08	6.960.000,00
B-14 zorra	2012/09/28	3.871.250,00
O-14 zorra	2012/09/28	2.100.000,00
O-13 zorra	2012/10/30	2.925.000,00
Galderaren egunera arte, guztira		56.460.883,95
O-10 zorra	2012/11/02	4.542.500,00
O-7 zorra	2011/11/15	4.797.000,00
O-9 zorra	2012/11/19	1.974.000,00
O-12 zorra	2012/11/22	3.320.000,00
Ordaintzeko, guztira		14.633.500,00
Kontusaila, guztira		71.094.383,95
		53.750.000,00
Gehikuntza		17.344.383,95
Guztira		71.094.383,95

Hirugarrena.

Aurreko puntuan adierazi den bezala, 2012ko urriaren 31ra arte Nafarroaren zorraren interes gisa 56.460.883,95 euro ordaindu dira, guztira. Aurreikusita dago kontzeptu bereko ordainketetan 2012ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra arte 14.633.500,00 euro ordainduko direla.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, bigarren seme-alabarengatiko eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bigarren seme-alabarengatiko eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 13ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak bigarren seme-alabarengatiko eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES158), hau erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

1.- Behinola Alli jaunak adierazi zuen bezala, eszedentziarako laguntzen eta lau seme-alaba edo gehiagoko familiarentzako laguntzen kontusailak desblokeatu egin ziren, baina lehenengoan murriztu egin zen baimendutako zenbatekoa, aurrekontu egonkortasuna lortu eta ahalbidetzeko, Nafarroako 2012ko aurrekontu osoaren 132.000.000 euroko murrizketaren ondorioz. Iragan urriaren 16an kontseilari ohi Pejenaute jaunaren agerraldian adierazi zen moduan, eszedentziarako laguntzen kontusailean murrizketa egiterakoan kontuan hartu zen bazirela jada bateragarritasunerako beste laguntza batzuk, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak berak emanak.

Hala, seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik aldi behingo diru-laguntza zuzenak banatzeko deialdian baimenduta eta aurreikusita zegoen zenbatekotik (2.234.428,15 euro), guztira 1.478.178,93 euro desblokeatu ziren, eta aurre-

kontuetako kontusailaren murrizketa aditzera eman zen 2012ko irailaren 20ko 479/2012 Foru Aginduaren bidez (198. NAO, urriaren 8koa).

Lau seme-alaba edo gehiagoko familiarentzako laguntzetarako aurrekontua ez zen batere murriztu.

Gastua egiteko baimena abuztuaren 2an eman zen, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposatutako murrizketak onetsi ondoren.

2.- Hauxe da espedienteen eta kontzesioen egoera, laguntza bakoitzari dagokionez, deialdiak argitaratu zirenetik hasita:

Eszedentziarako laguntzak:

1.- Aurkeztutako eskaerak: 1.000

2.- Baloratutako eskaerak: 325

4.- Baloratzeko dauden eskaerak, irailaren 30ean: 675

5.- Eman eta ordaindutako laguntzen zenbatekoa: 866.963,63 €

6.- Konpromisoa hartu gabe eta ordaindu gabe: 615.239,82 €

Laugarren eta hurrengo seme-alabarengatiko laguntzak:

1.- Laguntzen zenbateko baimendua: 869.259,00 €

2.- Aurkeztu eta baloratutako eskaerak: 1.300

3.- Ordaindutako eskaerak: 981

4.- Ordaintzeko dauden laguntzen zenbatekoa: 180.279,40 €

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatueta eginen den analitika motari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatueta eginen den analitika motari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 26ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera hau egin du, idatziz erantzuteko: "Zer analitika-mota eginen dira Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatueta? Lizarrako eta Tuterako ospitaleetan orain arte egindako jardueraren zer ehuneko eginen da hemendik aurrera laborategi zentralizatueta? Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak:

Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatueta eginen dira Iruñeko Barrutiko ospitale-jarduera presakoan nahiz arruntean behar diren analitikak eta Foru Komunitate osoko Lehen Mailako Arretarako behar direnak.

Tuterako Reina Sofía eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleetako erantzun azkarreko labora-

tegiek, berriz, kasuan kasuko ospitaleko ospitale-ratze-unitateetatik, larrialdietatik eta kanpo-kontsultetatik eskatzen zaizkien analitikak eginen dituzte, presakoak nahiz arruntak.

Reina Sofía eta García Orcoyen ospitaleetatik gaur egun Nafarroako Ospitaleguneko laborategi espezializatueta bidaltzen diren determinazioak hemendik aurrera ere Nafarroako Ospitalegunera bidaliko dira, laborategi zentralizatueta.

Honela banatzen da jarduera gaur egun:

Nafarroako Ospitalegunea	% 80
Tuterako Ospitalea	% 13
Lizarrako Ospitalea	% 7

Zentralizazio prozesuaren ondoren, honela banatuko da jarduera:

Nafarroako Ospitalegunea	% 90
Tuterako Ospitalea	% 7
Lizarrako Ospitalea	% 3

Reina Sofía Ospitaletik Nafarroako Ospitalegunera aldatutako jardueraren ehunekoa egungo jardueraren % 50 da, eta, García Orcoyen ospitalearen kasuan, % 52.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Pejenaute jaunarekin zerikusia duten zenbait galdera.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Pejenaute jaunari buruz egindako zenbait galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galderak argitaratu ziren 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Pejenaute jaunari buruz Gobernuko lehendakariari idatziz erantzuteko egindako zenbait galderari dagokienez (PES-00162tik PES-00168ra) hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

- Zein ekarpen egin zenuen Jesús Pejenautek kapitala zuritzeko egindako ahaleginari buruzko ikerketan?

Auditoria Batzordeko kide gisa, Yolanda Barcina Angulo andreari Batzordearen 2007ko maiatzaren 4ko bileran eman zioten Jesús Pejenautek billeteak aldatu izanari buruz erakundeak egindako jardueren berri, baita erakundeak, indarreko legediari jarraituz, Kapital Zuriketa Prebenitzeko Zerbitzu Betearazleari (SEPBLAC) billeteak aldatu izanaren inguruan egindako jakinarazpenaren berri ere.

- Zenbat aldiz bildu zen Kontrol Batzordea 2006an, 2007an eta 2008an?

2006. urtean, Kontrol Batzordeak ohiko 8 bilera egin zituen, eta 6 lan- eta informazio-saio ere bai, administrazio kontseiluarekin batera.

2007. urtean, Kontrol Batzordeak ohiko 9 bilera egin zituen, eta 6 lan- eta informazio-saio ere bai, administrazio kontseiluarekin batera.

2008. urtean, Kontrol Batzordeak ohiko 9 bilera egin zituen, eta 6 lan- eta informazio-saio ere bai, administrazio kontseiluarekin batera.

- Nafarroako Gobernuko lehendakariak adierazi zuen kasu hau Auditoria Batzordearen ardura zela. Zenbat aldiz bildu zen batzorde hori 2006an, 2007an eta 2008an?

2006. urtean Auditoria Batzordeak ohiko 4 bilera egin zituen.

2007. eta 2008. urteetan, Auditoria Batzordeak ohiko 3na bilera egin zituen.

- Bilera horietatik zeinetan aztertu zen Pejenaute jaunaren ustezko diru-zuritze ahalegina? Bilera horren akta eskatzen dugu.

Lehenago azaldu den bezala, gai horren berri 2007ko maiatzaren 4ko bileran eman zen. Bilera-aren akta Akten liburuan eta Nafarroako Kutzako Idazkaritza Nagusiaren agiritegietan dago.

- 500 euroko zenbat billete aldatu zitzaizkion, azkenean, Pejenaute jaunari?

Informazio hori ez dago eskura, Nafarroako Kutzaren barneko informazioa delako.

- Pejenaute jaunak zenbat diru aldatuko zuela iragarri zuen?

Informazio hori ez dago eskura.

- Zenbat diru justifikatu zion Nafarroako Aurrezki Kutxari Bartzelonan zeukan pisuaren salmenta zela eta?

Informazio hori ez dago eskura.

- Nori saldu zion pisua Pejenaute jaunak?

Informazio hori ez dago eskura.

- Hitz egin al zuen Nafarroako Aurrezki Kutxak edo Ogasunak eroslearekin, segurtatzeko diru hori pisuaren salmentatik zetorrela?

Informazio hori ez dago eskura.

- Egiaztatu al zuen Nafarroako Aurrezki Kutxak, edo gero Ogasunak, diruaren jatorria legezkoa zela?

Nafarroako Kutzaren barneko informazioa da.

- Ba al dago ikerketa horien egiaztagiririk?

Informazio hori ez dago eskura.

- Nafarroako Gobernuko lehendakariak adierazi zuen Espainiako Bankuak, SEPBLAC delakoaren bitartez, ez zuela arrazoirik aurkitu Pejenaute jaunari zehapenik ezartzeko. Txosten hori bidaltzeko eskatzen dugu.

Finantza-erakundeei aplikatu ahal zaien Kapital Zuriketaren Prebentziorako araudiaren arabera, Nafarroako Kutzak SEPBLACi Jesús Pejenaute jaunak egindako billete-aldaketaren datuak igorri ziz-

kion. Jakinarazpen ofizial hori, zehazki "eskudirutan egindako eragiketen jakinarazpen sistemati-koa" deitzen dena, finantza-erakundeek egiten dute, baina SEPBLACek ez du beren-beregi erantzuteko txostenik ematen, eskudirua aldatzeko eragiketak berez ez direlako delitua, ezta arau-hauste administratiboa ere. Hortaz, SEPBLACek informazio hori jasotzen du, eta eskudirutan egindako eragiketa horiek delitua edo arau-hauste administratiboa izan daitezkeela uste badu, egokiak diren jarduketak hasten ditu, eta Zerga Administrazioari edo Barne Ministerioari horren berri ematen dio, bidezkoa dena. Jesús Pejenaute jaunaren kasuan, egindako eragiketen berri eman zen, baina SEPBLACek ez du inolako jarduketarik egin.

Azkenik, komenigarria da zehaztea finantza-erakundeek SEPBLACi egiten dizkieten jakinarazpen guztiak, indarreko araudia betetzeko, erabat konfidentzialak direla, eta haiei buruzko informazioa ezin dela jendaurrean zabaldu. Hala eginez gero, araudiak oso larritzat kalifikatzen dituen zehapenak ezarri behar dira.

• Zein erabaki hartu zituzten Kontrol Batzordeak nahiz Auditoria Batzordeak?

Kontrol Batzordeak gai hori ez zuen aztertu bilera batean ere, Auditoria Batzordearen egoitzan aztertu zelako. Geroago, erakundeak barnean egindako jarduketan, SEPBLACi egindako jakinarazpenaren eta hartutako gainerako xedapenen berri eman zen, eta Batzordeko kideek horiek guztiak berretsi zituzten.

• Zein urrats egin ziren?

Ikusi aurreko galderaren erantzuna.

• Espediente honetan esku hartu zuten Diruzuriketaren Prebentziorako Nafarroako Kutxako Unitateko zenbat kideri kendu zizkieten beren karguak?

Nafarroako Kutxaren barneko informazioa da.

• Barcina andreak sinatu al zuen, Kontrol Batzordeko lehendakari gisa, Pejenaute jaunari espedienterik ez irekitzeko amaierako erabakia?

Lehenago azaldu den bezala, gai hori ez zen aztertu Kontrol Batzordearen egoitzan.

• Pejenaute kasuaren antzeko zenbat txosten eskatu behar izan dizkio Nafarroako Aurrezki Kutxak SEPBLACi?

Informazio hori ez dago eskura. Hala ere, lehenago azaldu den bezala, Nafarroako Kutxak hilean behin SEPBLACi eskudirutan egindako eragiketa guztien berri ematen dio, indarreko araudiaren ara-

bera zerbitzu betearazle horri jakinarazi behar dizkiolako.

• Zenbat zehapen espediente izapidetu dira?

Nafarroako Kutxaren barneko informazioa da.

• Zein jardute-protokolo jarraitzen du Nafarroako Aurrezki Kutxak dirua zuritzeko susmoaren aurrean?

Nafarroako Kutxak, gure herriko gainerako finantza-erakundeek bezala, Kapital Zuriketaren Prebentziorako Eskuliburua dauka, eta erakunde-ko langile guztiei eskuliburu horren edukari buruzko trebakuntza ematen zaie. Halaber, araudi-betetze arloak onetsitako prozeduren eskuliburuak modu zorrotzean arautzen dute zuriketaren prebentziorako unitatearen jarduera, berri emateko betebeharrak, kontrolak, etab., baita jarduketaren independentziari buruzko bermeak ere.

• Zein dira Foru Ogasunaren gomendioak?

Kapital Zuriketa Prebenitzeko Batzordeko Zerbitzu Betearazlearen eta Nafarroako Zerga Ogasunaren arteko harremanak xedapen arauemaileek arautzen dituzte, zehazki, Kapital-zuriketaren eta Terrorismoaren Finantzaketaren Prebentziorako Neurriei buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legeak, eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrak.

Lege horiekin bat etorri, bi erakundeek informazioa ematen diote elkarri.

SEPBLACek datuak Nafarroako Zerga Ogasunari jakinarazteari dagokionez, Ogasunak egiaztatu du zergadunak behar bezala ordaintzen dituela zergak.

Behar bezala ordaindu ezean, Zerga Administrazioak zergen ordainketa erregularizatzen du zerga bakoitzaren arauen eta kasuari aplikatu ahal zaizkion prozedura-arauen arabera.

• Hartu al zuen Nafarroako Aurrezki Kutxak erabakiren bat Pejenaute jaunari buruz?

Nafarroako Kutxaren barneko informazioa da.

• Zenbat denbora iragan zen Auditoria Batzordearen erabakitik Pejenaute jaunaren aurre-erretirora arte?

Lehenago azaldu den bezala, Auditoria Batzordeari informazioa gerora eman zitzaion.

• Zenbat kobratu zuen Pejenaute jaunak bere aurre-erretiroarengatik?

Informazio hori ez dago eskura.

• Zergatik kontratatu zen berriz ere Pejenaute jauna Viálogosen negozio-zuzendari gisa?

Informazio hori ez dago eskura.

- Zenbat kobratu zuen Pejenaute jaunak Nafarroako Aurrezki Kutxaren menpeko kontsulta-etxe horretan zuen eginkizunarengatik?

Informazio hori ez dago eskura.

- Babestu al zenuen zuk kontratazio hori?

Ez zuen babestu kontratazio hori, ezta Nafarroako Kutxa kudeatzeko ardurak zeukaten profesionalak erabaki eta formalizatutako gainerako kontratazioak ere.

- Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahaleginak egin ditu kasu honi garrantzia kentzeko, esanez “jende askok bazekiela”. Zehazki, nor zegoen jakinaren gainean Gobernuaren barruan, zure alderdian edo Nafarroako Aurrezki Kutxan?

Lehendakari andreak ezin du zehatz jakin nork zeukan Pejenaute jaunak Nafarroako Kutxako zuzendariorde nagusi gisa egin zuen jarduerari buruz egindako berrikuspenaren berri, baina argi dago horri buruzko informazioa finantza-erakunde langile askok eta Auditoria Batzordeko kideek eduki zutela.

- Zergatik ez zituen inork gertakari horiek salatu?

Delitu ez ziren gertakari batzuk ez zegoen salatzerik.

- Ba al dago zurekin nahiz zure Gobernuak kideren batekin lotutako beste eskandalurik, “jende askok badakiena” baina oraindik ere argitara atera ez dena?

Galderaren erantzuna berez dator, eta erantzunak frogatu egiten du Ramírez jaunaren galderak alderdikoiak direla.

- Hausnartu al du lehendakari andreak kasu honetan estaltze-konplizea izan ote daitekeen, baldin eta epaileren batek auzi hau ikertzea erabakitzen badu?

Ezin da egon delitu ez diren gertakari batzuen estaltzaile edo konplizerik.

- Zer iruditzen zaizu norbaitek 180.000 euro diru beltz garbitu nahi izatea?

Lehendakari andrea zerga iruzurraren aurkako borrokari bultzadarik handiena ematen ari zaio, eta horrenbestez, “diru beltzaren garbiketa” deritzonari buruz iritzirik negatiboena baizik ezin du izan; bide batez, Pejenaute jaunaren kasuan ez zen horrelako jarduerarik egon.

- Zergatik iruditzen zaizu Pejenaute jaunak behar bezalako gaikuntza zuela Gizarte Politiketako kontseilaria izateko?

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean azaldu ahal izan nuen bezala, Jesús Pejenaute jauna Gizarte Politiketako kontseilari izendatu nuen, kontuan hartu nuelako bere ibilbide profesionalagatik, prestaketagatik, dinamismoagatik, taldeak eratzeko gaitasunagatik eta mota guzti-etako gizarte-proiektuekiko konpromisoagatik nire ustez eta nire Gobernuaren ustez berebizikoa den departamentu bateko buru izateko baldintza egokiak zeuskala.

- Zergatik ez zinen atera Pejenaute jauna defendatzerik Kontuz-ek gizarteari gertatutakoaren berri eman zionean?

- Ustezko pertsona ustel bat izendatu izatearen erantzukizun politikoa hartuko al zenuke, Kontuz-en aurka zuk babestu zenuen kereila izapidetzerik onartuko ez balitz?

Galdetzailea kontraesanean dago, bere galderetan alde batetik dioenean Nafarroako Gobernuak lehendakariak Pejenaute jauna “ez zuela defendatu”, eta bestetik bere “kereila” “babestu zuela”.

Baliteke Maiorga Jiménez jaunak bere erantzukizun politikoa aintzat hartu behar izatea, Nafarroako Parlamentua egon ez zen delitu baten zioz pertsona baten aurkako salaketa erabili izanagatik, eta justizia-azitegien aurrean salaketa aurkezteari buruzko iragarpena bete ez zuen erakunde baten bozeramaile lana egin izanagatik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak bere sorreratik eginiko bilera eta jardueri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak bere sorreratik eginiko bilera eta jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villaba andreak Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak bere sorreratik eginiko bileren kopuruari eta arrazoiei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-173), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren agiritegietan dauden datuen arabera, hona hemen bileren zerrenda eta bilera horien gairerrenda osatu zuten gaiak:

BILERAREN DATA	GAI ZERRENDAREN LABURPENA
1996ko otsailaren 2a	Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Lege aurreproiektua
	Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Lege aurreproiektua
	Fundazioei buruzko Lege aurreproiektua
1996ko martxoaren 15a	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren eta Lizentzia Fiskalaren Tarifei eta Jarraibideari buruzko Foru Lege proiektua
	Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea (1996-2000)
	Nafarroako kooperatibei buruzko uztailaren 3ko 12/1989 Foru Legea aldatzeko aurreproiektua
	KESen Erregelamendua onestea
1996ko azaroaren 5a	Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko burua hautatzea
	PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen manu batzuk aldatzea
	Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua
	Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua
	1997rako Aurrekontuaren aurrerapena
1996ko abenduaren 10a	Lehentasunezko Nekazaritza Ustiatzei buruzko Foru Lege aurreproiektua aztertzea eta irizpenak ematea
	1997ko Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Lege aurreproiektua aztertzea eta irizpenak ematea
1997ko apirilaren 7a	Etxebizitza Plana 1997-2000
	Estatistikari buruzko Lege aurreproiektua
	"Navarra Suelo Industrial" eratzeko Foru Lege proiektua
1997ko irailaren 9a	Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen zirriborroa
	Nafarroako Oihan Plana
1997ko irailaren 30a	Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Lege aurreproiektua
1997ko urriaren 10a	Zenbait zerga aldatzeko Foru Lege aurreproiektua
1997ko urriaren 30a	1998ko Aurrekontuei buruzko Lege aurreproiektua
1998ko azaroaren 4a	1999ko Aurrekontuei buruzko Lege aurreproiektua
	PFEZari eta beste zerga batzuei buruzko Lege aurreproiektua
1999ko martxoaren 29a	Nafarroako etxebizitza bioklimatikoaren plana

BILERAREN DATA	GAI ZERRENDAREN LABURPENA
1999ko azaroaren 10a	KESeko burua hautatzea
	KESen Toki Administrazioaren ordezkaria eta bigarren, hirugarren eta laugarren taldeen ordezkariak izendatzea
	2000ko Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektua
	Nafarroako Landa Garapenerako Programazioa (2000-2006)
2000ko abenduaren 20a	Europar Batasunaren Leader Plus Ekimenaren Nafarroako Programa Eragilea
2002ko urriaren 30a	Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege aurreproiektua
	2003ko Aurrekontuei buruzko Foru Lege aurreproiektua
2003ko urriaren 1a	Epe ertainerako plan ekonomikoaren eta 2004ko aurrekontuaren jarraibideen aurkezpena
	KESek egin beharreko jarduerak handitzeko proposamena
2003ko urriaren 29a	2004ko Aurrekontuei buruzko Foru Lege aurreproiektua
2004ko azaroaren 2a	2005eko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege aurreproiektua
	Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege aurreproiektua
2004ko abenduaren 16a	Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko Foru Lege proiektuaren zirriborria.
2005eko azaroaren 2a	2006ko Aurrekontuei buruzko Foru Lege aurreproiektua.
	Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua
2006ko ekainaren 27a	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua.
	Lan batzordeak eratzea
2006ko urriaren 31	Kontseilu Ekonomiko eta Soziala eratzea
	Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko burua hautatzea
	2006ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.
	Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua.
2007ko azaroaren 23a	Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko burua hautatzea
	2008ko Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua.
	Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua.
2008ko ekainaren 24a	Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Foru Ogasunaren 2008-2012 Planaren zirriborria entregatzea
	Zerga Erreformaren proposamenari buruzko informazioa
	Iguripen ekonomikoei buruzko informazioa.
	2009ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak
2008ko urriaren 30a	2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege aurreproiektua. (Agiriak erantsi dira)
	Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua.
	Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko 2008-2012 planari buruzko txostena.

BILERAREN DATA	GAI ZERRENDAREN LABURPENA
2009ko uztailaren 3a	Egoera ekonomikoari buruzko txostena.
	2009ko aurrekontu aurreikuspenak
	Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko planaren lehenengo balantzea
	2010eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek egitea
2009ko urriaren 30a	2010eko Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Lege aurreproiektua
	Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege aurreproiektua.
2010eko uztailaren 29a	Egoera ekonomikoari buruzko txostena
	Moderna Planari buruzko txostena
	2011ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek egitea
2011ko azaroaren 4a	2012ko Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Lege aurreproiektua
	Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege aurreproiektua
2012ko urriaren 29a	2013ko Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Lege aurreproiektua
	Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege aurreproiektua

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, kreditu-kontusail zabalgarrien erabilerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak kreditu-kontusail zabalgarrien erabilerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak Hezkuntza Departamentuaren kontusail baten kreditua handitzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-170), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilariak:

Urte bakoitzeko aurrekontuen proiektua aurreko urteko azken hiruhilekoan egin ohi da, eta langileria arloko aurreikuspenak, beraz, langileek orduan duten egoera administratiboaren arabera egin behar izaten dira (jardunean diren langileak, erretiratuak, eszedentzian daudenak, zerbitzu berezietan ari direnak, eta abar). Hala, hizpide dugun kasuan, 2012ko aurrekontuen proiektua

egin zenean langileen 2011ko urriko egoera administratiboak hartu ziren kontuan.

Egoera horiek aldatuz joan dira 2012an zehar, irakasle funtzionarioen erretiro, eszedentzia eta abarrekoak gertatu ahala, eta irakasle kontratatuak bete dituzte haien lekuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako irakasle funtzionario gehienek Estatuko funtzionario zibilen gizarte segurantzako araubide berezia dute, hau da, MUFACEn kotizatzen dute, baina administrazio-kontratudun langileek gizarte segurantzako araubide orokorra dute.

Galderan aipatutako Gizarte Segurantzaren kontusail horretan enpresak araubide bereziko langileengatik Gizarte Segurantzari ordaintzen dion kotizazioa jaso da.

Labur azalduta, egoera administratiboak urtean zehar aldatzen direlako eta kotizazio araubide desberdinak daudelako egin da aldaketa hori.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer eginkizun zituen 2007an Nafarroako Kutxako Auditoria Batzordeko kide gisa eta Kontrolerako Batzordeko lehendakari gisa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer eginkizun zituen 2007an Nafarroako Kutxako Auditoria Batzordeko kide gisa eta Kontrolerako Batzordeko lehendakari gisa. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako Kutxako zenbait organotan Yolanda Barcina andreak 2007an zituen eginkizunei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00161), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Kutxan 2007an indarra zuten estatutuetan ezarritakoarekin bat, Administrazio Kontseiluko buruarekin batera ordezkari eta erakunde eginkizunak betetzeaz gainera, Yolanda Barcina andreak, Kontrol Batzordeko burua zenez, gobernu organo horren jarduera eta funtzionamendua kontrolatzen zituen, haren bilkuretan buru aritzen zen eta idazkariaren laguntzaz haren eztabaida eta erabakien nondik norakoa zuzentzen zuen.

Kontrol Batzordeko buruaren eginkizuna zen, halaber, harremanak bideratzea entitateko Administrazio Kontseiluarekin, gainerako gobernu organoekin eta zuzendaritzarekin.

Kontrol Batzordeak, berriz, Administrazio Kontseiluaren eta Batzorde Betearazlearen kudeaketa lanak eta jarduketak gainbegiratzea zuen eginkizun nagusia, Kontseilu Nagusiak urtero entitatea-

rentzat onetsitako jarduketa-ildo orokorrekin eta finantza-araudian ezarritako gidalerroekin bat zetozela bermatzeko; bi organo horiek hartutako erabakiak eteteko ere eska zezakeen. Gainera, Kontrol Batzordeak hauteskunde batzordearen lanak egiten zituen: gobernu organoetako kideen hautapenak, berritze prozesuak eta kargu hutsak betetzekoak zuzendu eta gainbegiratzen zituen. Azkenik, Kontrol Batzordea zen estatutuetako manuak interpretatzen zituen organoa.

Kontuak Ikuskatzeko Batzordeari dagokionez, estatutuetan organo horri esleitutako eginkizunak betez, Kontuak Ikuskatzeko Batzordeko kideek entitatekan kanpoko kontu-ikuskariaren izendapena eta, hala behar zenean, hura kontratatze baldintzak eta haren izendapenaren errebokazioa edo berritzea proposatzen zizkioten Administrazio Kontseiluari, proposamen horiek Kontseilu Nagusiaren esku jartzeko.

Halaber, entitateko Barneko Kontu Ikuskapeneko zerbitzuaren eta Arauak Betetzeko zerbitzuaren jarduera ezagutu eta kontrolatu behar zuten, bai eta finantza-informazioaren prozesua eta barneko kontrol sistemak ere.

Kontuak Ikuskatzeko Batzordea eta hura osatzen zuten kideak, azkenik, kanpoko kontu-ikuskariaren solaskideak ziren, eta, behar izanez gero, informazioa eskatzen zioten haren independentzia arriskuan jar zezaketen gorabeherei buruz eta kontu-ikuskapenarekin zerikusia zuen beste edozein gairi buruz. Ildo horretan, Kontuak Ikuskatzeko Batzordeko kideek zuzeneko informazioa jasotzen zuten eta kontu-ikuskaritza arloko legerian eta arau teknikoetan aurreikusitako harremanak izaten zituzten kanpoko kontu-ikuskariarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entzunaldiak bertan behera uzteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entzunaldiak bertan behera uzteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entzunaldiei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00160), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Música en Acción programako eskola eta familia kontzertuak 2011-2012 denboraldira arte egin dira.

2010eko otsailean Hezkuntza Kontzertuen Antolatzaileen Sarearen (ROCE) sorrera sinatu zen Iruñean. Departamentu hau sareko kide da.

Horrek bide eman du sarean lan egin ahal izateko musikaren arloko pedagogian ari diren beste autonomia erkidego batzuetako erakundeekin batera, eta bestelako esperientziak ezagutu dira, esate baterako Erresuma Batukoak, Portugalgoak eta Frantziakoak. Egindako ikerketak eta esperientzia berritzaileak abiapuntutzat harturik, jendea arteen bitartez sentiberatzeaz hitz egiten denean ondorioztat ateratzen da haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako haur eta gazteek bestelako planteamenduak behar dituztela laurogeita hamarreko hamarkadan garatutakoen orde. Ikus-entzuleriak sortzeko programen eta musika-programa pedagogikoen ikuspegia aldatu beharra hauteman da: egiten den lanean garrantzitsuagoa da haur eta gazteek parte hartzea eta sortzen diren edukiak lantzea, besoak gurutzatuta kontzertua entzuten egotea baino.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremaneta-

ko Departamentuak, ziklo bat bete delakoan, programa berrikustea erabaki du.

Lanerako aukera berriak aztertzen ari dira, lehengo etapa gaudituko dutenak, haur eta gazteek sorkuntza eta interpretazio prozesuan parte har dezaten musikari profesionalekin batera, horrela benetako prozesu musikal bat taxutzeko. Espainiako orkestrak banaka azterturik, egiaztatu da proiektu-eredu horrexen alde apustu egiten ari direla azken urteotan.

Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, uste dugu Nafarroako Orkestra Sinfonikoak balio handia duela programa hau garatzeko, eta 2013rako lantzen ari den ikuspegi berriari ongien egokitzen zaion kultura eragilea dela. Hain zuzen ere duela hilabete batzuk musika-proiektu pedagogiko baten proposamena ikertu, taxutu eta aurkezteko lankidetzak finkatu da Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren (NOS) artean. NOSek eredu berriaren ildoko proposamena aurkeztu zuen eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak balorazio positiboa egin zion. Hala ere, 2012ko bigarren seihilekoko aurrekontu egoera dela-eta, 2013ko denboraldirako planteatu da proiektua.

NOSek gauzatu nahi duen proposamenak hiru ekimen edo proiektu biltzen ditu: eszenatoki eta eremu publiko desberdinetara molda daitekeen ikuskizun-kontzertua, haur eta gazteek musikaren sorkuntzan eta interpretazioan zuzenean lan egiteko proiektua, eta beste arte-alor batzuetan ari direnekin batera lan egiteko proiektua.

Proiektu horiez gain, Departamentuak bestelako jarduerak ere antolatu ditu musikaren pedagogiari begira, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin eta zenbait arte-erakunderekin elkarlanean:

Pablo Sarasate fundazioak agindu du, Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin sinaturiko hitzarmenean, gutxienez 700 gonbidapen emanen dituela orkestraren kontzertuetarako, musika susta dadin Nafarroako Foru Komunitateko eskola-ikasleen artean. Gonbidapenak kontzertuen artean banatu aurretik Kulturako Zuzendaritza Nagusia eta fundazioa ados jartzen dira, kontuan izanik jarleku hutsen kopurua, egitarauen eta daten egokitasuna eta ikastetxeen eskaria; orkestraren abonuzikloko kontzertuetan ikastetxeen eskariak lehenetsuna du sarreren salmenta librearen gaitetik.

Diru-laguntzak banatzeko deialdietan beste arte-erakunde batzuek aurkeztutako proiektuen emaitza gisa, 2012ko denboraldian haurrentzako bi opera eskaini dira: Piratas eta El Traje Nuevo del Emperador, biak ere Nafarroako Ganbera Opera elkarteak burutuak. Emanaldi horien aurretik lantegiak egiten dira eskola ingurunean, irakasleekin batera.

Programari lotutako antolaketa eta garraio gastuei dagokienez, Departamentuak bere baliabide materialak eta langileak jarri ditu antolaketarako, eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoak laguntza eman du, azken urteotan sinatutako hitzarmenen bidez. Hona hemen programaren gastuak urtez urte:

2012: 97.671,31 euro.

2011: 120.060 euro.

2010: 165.673,79 euro.

2009: 187.798,9 euro (150.000 euro + azaroko 30.000 euroko gastu-gehikuntza eta 1.210,1 euroko soberakina).

Diru-kopuru horietan askotariko gastuak sartzen dira:

Zuzendaritza artistikoa, programako produkzio berekietan parte hartzen duten musikari eta kontzailleen ordainsariak, aretoen alokairua (Baluarte, Gayarre antzokia eta Barañaingo auditoriuma), teknikarien ordainsariak (argia, soinua, aretoko langileak, etab.), material didaktikoa ekoizteko gastuak (irakasleei kontzertuak prestatzeko eskaintzen zaizkien gida didaktikoak egiteagatik irakasle eta adituei ordaindu beharrekoa), gida didaktikoen argitalpen gastuak, web orria eguneratzeko gastuak, eskuko egitarauak argitaratzeko gastuak, publizitatea eta komunikazioa (sustapen materialak, giltzatakoak, elastikoak etab.).

Garraio gastuei dagokienez, ikastetxeek berek kudeatzen dituzte gastu horiek.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakitekoa zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestarán jaunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako kuotaren % 0,7aren esleipenari buruz idatziz erantzuteko egin-

dako galderari dagokionez (PES-169), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. Erantsi dudun taulako datuak ohiko bizilekua Nafarroan duten zergadunen aitortzetatik jaso dira; 2011n sorrarazitako pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) dela-eta 2012an aurkeztutako aitortzetatik, hain zuzen.

Esleipen-modalitateetako ("zurian," "Eliza," "bestelakoak," "biak") bakoitzari buruz datu hauek ageri dira:

– Aitortpen-egileen kopuruari buruzko datuak.

– Erantsitako kuota osoari buruzko datuak, % 0,7aren esleipenaren ehunekoa aplikatu gabe.

Bi modutara eman dira modalitate bakoitzari buruzko datuak: balio absolutuan eta ehunekotan (aitortpen-egile guztien arabera edo 2011ko zergaldiko PFEZaren kuota osoko datuak).

NAFARROA-PFEZa/ 2011				
	Aitorpen-egileen kopurua		Kuota osoa, guztira	
	Balio absolutua	%	Balio absolutua (eurotan)	%
Zurian	91.619	% 18,45	87.717.901,16	% 5,60
Eliza	163.951	% 33,01	637.899.828,56	% 40,73
Bestelakoak	216.601	% 43,61	745.449.927,88	% 47,60
Biak	24.453	% 4,92	94.940.697,05	% 6,06
Guztira	496.624	% 100,00	1.566.008.354,65	% 100,00

2. PFEZaren aitorpena egitean “biak” modalitatea hautatu duten zergadunen kuota osoen baturaren 100eko 0,7aren aplikazioari dagokionez, ohar hauek egin behar dira:

Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena arautzen duenak, 1. artikuluan hauxe dio:

“PFEZaren aitorpena egitean ‘gizarte-intereseko beste xede batzuk’ hautatu duten zergadunen kuota osoen baturari 100eko 0,7 aplikatuzetik heldu den zenbatekoak berariazko atxikipena izanen duen kontusail bat osatuko du urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa’ izenekoa”.

Bestalde, Estatuaren Administrazioak Elizarentzako asignazioaren kalkulua egin ahal izateko datuak izan ditzan, Foru Komunitateak Nafarroako biztanleei dagokien tributuek esleipenari buruzko ziurtagiri bat ematen dio.

Nafarroako Zerga Ogasunak PFEZaren aitorpenarako onetsitako inprimaki eta programetan, beraz, bi lauki marka daitezke tributuek esleipena egiteko: “Eliza Katolikoaren sostenguari laguntzea” eta “gizarte-intereseko beste xede batzuei laguntzea”.

Hortik aurrera hainbat aukera daude; nahiz eta, 2000. urtera arte, araudian (Estatuko Aurrekontu Orokorrek) ezarrita zegoen bi laukiak bateraezina zirela eta laukietako bat ere seinatu ezean “gizarte-intereseko beste xede batzuei” esleitzen zitzaie diru-kopurua, gaur egun, indarra duen araudiari jarraituz, subjektu pasiboak laukietako bat hauta dezake, edo ez bata ez bestea, edo biak, eta ez dago berariaz finkatuta “ez bata ez bestea” edo “biak” hautatuz gero nolako esleipena egiten duen.

Aukera horien aurrean, eta goian aipatutako arauak kontuan izanik, Nafarroako Gobernuak,

urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako berariazko kontusail batean (“gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa”) sartzen du, batetik, PFEZaren aitorpena egitean “gizarte-intereseko beste xede batzuk” laukia markatu duten zergadunen kuota osoen baturaren 100eko 0,7, eta bestetik, PFEZaren aitorpena egitean tributuek esleipenerako bi laukiak (“Eliza Katolikoaren sostenguari laguntzea” eta “gizarte-intereseko beste xede batzuk”) markatu dituzten zergadunen kuota osoen baturaren erdiaren 100eko 0,7, Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztutako PFEZ aitorpenen erregistroetako datuen arabera.

Hori dela eta, esan beharra dago zergadunak “biak” hautatzen duenean, Eliza Katolikoaren sostenguari eta beste xede batzuei lagundu nahi diela adieraziz, ezin dela ulertu esleipen “osoa” egin nahi dienik bi xede horietako bakoitzari; hala balitz, zergadun batzuei PFEZaren 100eko 0,7 atxikiko litzaie eta beste batzuei 100eko 1,4. Atxikipen bikoitz hori ez dago berariaz arauturik eta litekeena da ez edukitzea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 8.2 artikulua babesik, ezta Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 4. artikulua babesik ere; xedapen horien arabera, PFEZa eta gainerako tributuek bilduz lortzen diren baliabideak betebeharrak publikoak betetzeko erabiliko dira eta ez zaie bildutako baliabideen zati bat xede jakinei atxikiko, non eta ez den legez ezartzen xede jakinei atxiki behar zaie, aipatutako 7/2009 Foru Legearen 1. artikuluan berariaz egin den bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakitekoa zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako kuotaren % 0,7aren esleipenari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-

171), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

1. ERANTSI DUDAN taulako datuak ohiko bizilekua Nafarroan duten zergadunen aitortpenetik jaso dira; 2011n sorrarazitako pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) dela-eta 2012an aurkeztutako aitortpenetik, hain zuzen.

Esleipen-modalitateetako (“zurian”, “Eliza”, “bestelakoak”, “biak”) bakoitzari buruz datu hauek ageri dira:

– Aitorpen-egileen kopuruari buruzko datuak.

– Erantsitako kuota osoari buruzko datuak, % 0,7aren esleipenaren ehunekoa aplikatu gabe.

Bi modutara eman dira modalitate bakoitzari buruzko datuak: balio absolutuan eta ehunekoa (aitorpen-egile guztien arabera edo 2011ko zergaldiko PFEZaren kuota osoko datuak).

NAFARROA-PFEZa/ 2011				
	Aitorpen-egileen kopurua		Kuota osoa, guztira	
	Balio absolutua	%	Balio absolutua (eurotan)	%
Zurian	91.619	% 18,45	87.717.901,16	% 5,60
Eliza	163.951	% 33,01	637.899.828,56	% 40,73
Bestelakoak	216.601	% 43,61	745.449.927,88	% 47,60
Biak	24.453	% 4,92	94.940.697,05	% 6,06
Guztira	496.624	% 100,00	1.566.008.354,65	% 100,00

2. PFEZaren aitortpena egitean “biak” modalitatea hautatu duten zergadunen kuota osoen baturaren 100eko 0,7aren aplikazioari dagokionez, ohar hauek egin behar dira:

Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena arautzen duenak, 1. artikuluan hauxe dio:

“PFEZaren aitortpena egitean ‘gizarte-intereseko beste xede batzuk’ hautatu duten zergadunen kuota osoen baturari 100eko 0,7 aplikatuzetik heldu den zenbatekoak berariazko atxikipena izanen

duen kontusail bat osatuko du urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa’ izenekoa.”

Bestalde, Estatuaren Administrazioak Elizarentzako asignazioaren kalkulua egin ahal izateko datuak izan ditzan, Foru Komunitateak Nafarroako biztanleei dagokien tributuek esleipenari buruzko ziurtagiri bat ematen dio.

Nafarroako Zerga Ogasunak PFEZaren aitortpenerako onetsitako inprimaki eta programetan, beraz, bi lauki marka daitezke tributuek esleipena egiteko: “Eliza Katolikoaren sostenguari laguntzea”

eta “gizarte-intereseko beste xede batzuei laguntzea”.

Hortik aurrera hainbat aukera daude; nahiz eta, 2000. urtera arte, araudian (Estatuko Aurrekontu Orokorrak) ezarrita zegoen bi laukiak bateraezinak zirela eta laukietako bat ere seinalatu ezean “gizarte-intereseko beste xede batzuei” esleitzen zitzaiela diru-kopurua, gaur egun, indarra duen araudiari jarraituz, subjektu pasiboak laukietako bat hauta dezake, edo ez bata ez bestea, edo biak, eta ez dago berariaz finkatuta “ez bata ez bestea” edo “biak” hautatuz gero nolako esleipena egiten duen.

Aukera horien aurrean, eta goian aipatutako arauak kontuan izanik, Nafarroako Gobernuak, urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako berariazko kontusail batean (“gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa”) sartzan du, batetik, PFEZaren aitortzea egitean “gizarte-intereseko beste xede batzuk” laukia markatu duten zergadunen kuota osoen baturaren 100eko 0,7, eta bestetik, PFEZaren aitortzea egitean tributu-esleipenerako bi laukiak (“Eliza katolikoaren sostenguari laguntzea” eta “gizarte-intereseko beste xede batzuk”) markatu dituzten zergadunen kuota osoen baturaren erdiaren 100eko 0,7, Nafarroako Zerga Ogasunean aurkez-

tutako PFEZ aitortzen erregistroetako datuen arabera.

Hori dela eta, esan beharra dago zergadunak “biak” hautatzen duenean, Eliza katolikoaren sostenguari eta beste xede batzuei lagundu nahi diela adieraziz, ezin dela ulertu esleipen “osoa” egin nahi dienik bi xede horietako bakoitzari; hala balitz, zergadun batzuei PFEZaren 100eko 0,7 atxikiko litzaieke eta beste batzuei 100eko 1,4. Atxikipen bikoitz hori ez dago berariaz arauturik eta litekeena da ez edukitzea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 8.2 artikulua babesik, ezta Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 4. artikulua babesik ere; xedapen horien arabera, PFEZa eta gainerako tributuak bilduz lortzen diren baliabideak betebeharrak publikoak betetzeko erabiliko dira eta ez zaie bildutako baliabideen zati bat xede jakinei atxikiko, non eta ez den legez ezartzen xede jakinei atxiki behar zaie, aipatutako 7/2009 Foru Legearen 1. artikuluan berariaz egin den bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, 2011n eta 2012an entitate pribatuekin eginiko osasun arloko deribazio eta itunen datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2011n eta 2012an entitate pribatuekin eginiko osasun arloko deribazio eta itunen datuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 26ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera hau egin du, idatziz erantzuteko: “Espezialitate bateko eskariari aurre egiteko unean-unean izandako gabeziak eta unean-unean izandako gaitzirik, kirurgia-operazioei dagokienez. Kontseilariak azaroaren 15ean eman zizkigun datuei erreparatuta, gustatuko litzaiguke zehaztea nolako operazioak deribatu ziren zentro bakoitzera (CUNera eta San

Miguel klinikara) 2011n eta 2012an, eta horietako bakoitzak operazio mota bakoitza dela-eta kobratutako tarifak ere bai” (PES-000176). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

“Espezialitate bateko gaitzirik edo eskariaren gehikuntza dela-eta deribatutako operazioak” atalean, jakinarazi genuen 3 operazio egin zirela 2012an (2011n, berriz, 1.203), zenbatu gabe zeuden 100 kolezistektomiak alde batera utzita. Emandako datu hori ez da zuzena. Benetan 256 ebakuntza egin dira 2012an arrazoi horrengatik (kolezistektomiak zenbatu gabe daudela oraindik). Barkamena eskatu behar dizuet akats hori egin zelako informazioaren ustiapenean eta egiaztapenean.

Aurrekoa argituta, honako taula hauek egin dira:

1.- Nafarroako Unibertsitate Klinikarako deribazioak, gaitzirik dela-eta (itxarote-zerrenda) (ebakuntza mota, espezialitatea, kopurua eta ordaindutako batez besteko prezioa jaso dira):

1.1.- 2011. urtea: 522 operazio, guztira.

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
OINAREN ETA ORKATILAREN ARTRODESIA	3	2.586,00	KOT
ARTRODESI INTERFALANGIKOA	33	2.702,00	KOT
ARTRODESI BERTEBRALA	4	7.241,00	KOT
ARTROSKOPIA	119	2.595,04	KOT
BY PASS GASTRIKOA	21	12.107,00	KIRURGIA OROK.
ORNOARTEKO DISKOA DEUSEZTATZEA	2	5.697,00	KOT
AKILESEN TENDOIA LUZATZEA	1	706,50	KOT
ERROTULA EGONKORTZEA	1	4.058,00	KOT
ZORROKO LESIOAREN ESZISIOA	5	484,18	KOT
FINKATZEKO MATERIALA ATERATZEA	7	1.867,71	KOT
HEZURRAREN EBAKETA, ESZISIOA ETA ZATIKETA (7 IZAN EZIK)	5	4.892,00	KOT
KARPOKO KANALA BERRIREKITZEA	90	815,54	KOT
BIHOTZEKO ODOL-HODIEN EBAKUNTZA KATETERISMORIK GABEA, EGUNEKOA	1	13.266,00	BIHOTZEKO KIRURGIA
ESKUKO BESTELAKO FASZIEKTOMIA	14	798,96	KOT
ESKUKO BESTELAKO FASZIEKTOMIA	7	794,92	KOT
SUDURREKO POLIPEKTOMIA	1	600,00	ORL
UZKIKO FISTULAREN KONPONKETA	1	785,00	KIRURGIA OROK.
BELAUNeko LOKAILUEN KONPONKETA	8	4.058,00	KOT

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
ALDAKA BERRIA JARTZEA	13	7.368,07	KOT
BELAUN BERRIA JARTZEA, OSORIK	23	7.725,40	KOT
SEPTOPLASTIA	1	1.638,00	ORL
NERBIOAREN JOSTURA	9	3.103,00	KOT
BALBULARRAK	10	14.078,40	BIHOTZEKO KIRURGIA
BIOPSIA + LEGRATUA HEZURREKO TUMOREAN	1	568,00	KOT
BLOKEO ZENTRALA X IZPIEKIN	8	568,00	KOT
HATZ KAKOTUA	24	549,14	KOT
UKONDOKO MUSKULUEN LOTUNEA ASKATZEA	2	568,00	KOT
GANGLIOI XUMEA ERAUZTEA	1	417,08	KOT
KISTE SINOBIALA ERAUZTEA	1	568,00	KOT
KORTIKOIDEEN INFILTRAZIOA	3	568,00	KOT
GERRIALDEKO INFILTRAZIOA	17	559,12	KOT
KOT INFILTRAZIOAK	2	60,00	KOT
ANESTESIAPEKO MOBILIZAZIOA	2	568,00	KOT
IRRATI-FREKUENTZIA	6	568,00	KOT
TUMOREEN / NODULU ERREUMATIKOEN ERRESEKZIO SIPLEA	47	548,73	KOT
EHUN BIGUNETAKO TUMOREAREN ERRESEKZIO SIPLEA	13	568,00	KOT
RIZOLISIA	11	568,00	KOT
ZAURIA JOSTEA	1	417,08	KOT
AZKAZAL INKARNATUA	4	568,00	KOT

1.2.- 2012. urtea (urtarrila-abuztua): 30 ebakuntza, guztira.

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
ARTROSKOPIA	5	2.934,79	KOT
BY PASS GASTRIKOA	10	12.077,77	KIRURGIA OROKORRA
FINKATZEKO MATERIALA ATERATZEA	1	2.231,30	KOT
GASTREKTOMIA OSOA	1	9.199,62	KOT
KARPOKO KANALA BERRIREKITZEA	3	833,73	KOT
ESKUKO BESTELAKO FASZIEKTOMIA	1	822,26	KOT
ALDAKA BERRIA JARTZEA	1	7.565,31	KOT
BELAUN BERRIA JARTZEA, OSORIK	3	7.934,97	KOT
SINOBEKTOMIA	1	4.805,63	KOT
HATZ KAKOTUA	1	581,62	KOT
IRRATI-FREKUENTZIA	2	574,81	KOT
SINPATEKTOMIA LUNBARRA, IRRATI-FREKUENTZIA	1	581,62	KOT

2.- Nafarroako Unibertsitate Klinikarako deribazioak, eskariari aurre egiteko unean uneko gabeziak direla-eta (ohe edo ebakuntza-gelen falta edo patologia mota):

2.1.- 2011. urtea: 429 ebakuntza, guztira.

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
ANGIOGRAFIA DIGITAL TERAPEUTIKOA	5	5.692,30	BIHOTZEKO KIRURGIA
DIALISIRAKO ARTERIOBENOSTOMIA	2	1.224,75	KIRURGIA KARDIOBASK.
ARTRODESI INTERFALANGIKOA	1	2.702,00	KOT
ARTRODESI BERTEBRALA	1	7.241,00	KOT
ARTROSKOPIA	2	2.557,00	KOT
BY PASS GASTRIKOA	1	12.107,00	KIRURGIA OROKORRA
Parkinsoneko kirurgia eta inplantea	4	20.480,00	NEUROKIRURGIA
KOLEZISTEKTOMIA PROGRAMATUA	3	2.675,00	KIRURGIA OROKORRA
TRATAMENDURAKO GAILUA JARTZEA	2	1.668,00	KOT
KRANEOTOMIA	5	12.395,00	NEUROKIRURGIA
DAKRIOZISTEKTOMIA	1	1.361,00	OFTALMOLOGIA
ABDOMEN BARRUKO BENA-ZIRKULAZIOA DESBIDERATZEA	1	5.786,00	KIRURGIA KARDIOBASK.
GIBELEKO EHUNA EDO LESIOA DEUSEZTATZEA	1	6.465,00	KIRURGIA OROKORRA
HEMORROIDEEN ESZISIOA	1	1.005,00	KIRURGIA OROKORRA
KRISTALINOA ATERATZEA + BBL	1	1.349,00	OFTALMOLOGIA
EHUNA ERAUZI EDO SUNTSITZEA	1	1.905,00	KOT
KRISTALINOA ATERATZEA + BBL	1	1.349,00	OFTALMOLOGIA
FINKATZEKO MATERIALA ATERATZEA	1	2.179,00	KOT
HEZURRAREN EBAKETA, ESZISIOA ETA ZATIKETA (7 IZAN EZIK)	1	4.892,00	KOT
HODIETAKO ZIZTADA EDO ENDARTEREKTOMIA	1	7.380,00	BIHOTZEKO KIRURGIA
ARTERIA BARNEKO IRRADIAZIO HEPATIKOA	3	5.786,00	KIRURGIA OROKORRA
LOBEKTOMIA HEPATIKOA	1	6.465,00	KIRURGIA OROKORRA
MASTOIDEKTOMIA	1	2.269,00	ORL
NEFREKTOMIA ERABATEKOA	1	6.824,00	NEFROLOGIA
BIHOTZEKO ODOL-HODIEN EBAKUNTZA KATETERISMORIK GABEA, EGUNEKOA	4	13.466,34	BIHOTZEKO KIRURGIA
BESTELAKO ESZISIO LOKALA EDO SUNTSIKETA	13	2.720,00	KOT
BESTELAKO TINPANOPLASTIA	1	1.951,00	ORL
PIELOTOMIA ETA PIELOSTOMIA	2	5.105,00	NEFROLOGIA
PROTESI KOKLEARRA, ERREHABILITAZIOAREKIN	15	5.896,21	ORL
PROSTATEKTOMIA TRANSURETRALA ETA SUPRAPUBIKOA	2	2.949,00	UROLOGIA
PROTESI INPLANTATUAK	1	1.880,00	KOT
UZKIKO FISTULAREN KONPONKETA	1	785,00	KIRURGIA OROKORRA
ALDAKA BERRIA JARTZEA	5	7.388,00	KOT
BALBULARRAK	2	13.198,40	BIHOTZEKO KIRURGIA
BASKULARRAK ETA ANEURISMAK	1	10.513,00	BIHOTZEKO KIRURGIA
BLOKEO ZENTRALA X IZPIEKIN	1	568,00	KOT
TRAKEOSTOMA IXTEA	1	417,08	KIRURGIA OROKORRA
HATZ KAKOTUA	1	568,00	KOT
ERPE ERAKO BEHAZAK, ALDE BAKARREAN	1	417,08	KOT
EPIDUROLISIA	1	568,00	KOT
GLOSEKTOMIA PARTZIALA LASERRAREKIN	1	568,00	ORL

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
KANPO BELARRIKO INPLANTEA	1	568,00	ORL
BEGI BARNEKO LENTEAREN INPLANTE SEKUNDARIOA	4	1.880,00	OFTALMOLOGIA
GERRIALDEKO INFILTRAZIOA	1	568,00	KOT
ESKU-HARTZE BEREZIA	2	568,00	KOT
BENA BARNEKO ANESTESIA-PERFUSIOA, MONITORIZAZIOAREKIN	2	568,00	KOT
IRRATI-FREKUENTZIA	6	568,00	KOT
RESURFACING ERTAINA CO2-ZKO LASERRAREKIN	1	568,00	DERMATOLOGIA
RESURFACING TXIKIA CO2-ZKO LASERRAREKIN	2	492,54	DERMATOLOGIA
SINPATEKTOMIA LUNBARRA, IRRATI-FREKUENTZIA	1	568,00	KOT
GIBELEKO BIOPSIA ITXIA	1	1.361,00	KIRURGIA OROKORRA
ABLAZIOA KATETERRAREKIN	4	17.966,00	KIRURGIA KARDIOBASK.
BENTRIKULUKO PAUSO-MARKAGAILUA PARATZEA	23	2.487,93	BIHOTZEKO KIRURGIA
METASTASIEN ERRADIOKIRURGIA	1	9.004,00	NEUROKIRURGIA
ABLAZIOA KATETERRAREKIN	2	17.966,00	BIHOTZEKO KIRURGIA
ANASTOMOSI BILIARRA	1	5.217,00	KIRURGIA OROKORRA
ANGIOGRAFIA DIGITAL TERAPEUTIKOA	18	5.681,89	BIHOTZEKO KIRURGIA
DIALISIRAKO ARTERIOBENOSTOMIA	10	1.551,35	KIRURGIA KARDIOBASK.
ARTRODESI INTERFALANGIKOA	2	2.702,00	KOT
ARTRODESI BERTEBRALA	1	7.241,00	KOT
GIBELEKO BIOPSIA ITXIA	2	1.361,00	KIRURGIA OROKORRA
Parkinsoneko kirurgia eta inplantea	1	20.480,00	NEUROKIRURGIA
ZISTEKTOMIA OSOA	1	11.347,00	UROLOGIA
KOLEZISTEKTOMIA PROGRAMATUA	4	2.675,00	KIRURGIA OROKORRA
TRATAMENDURAKO GAILUA JARTZEA	5	1.668,00	KOT
KRANEOTOMIA	3	12.395,00	NEUROKIRURGIA
KRANEOTOMIA ETA KRANIEKTOMIA	1	11.391,52	NEUROKIRURGIA
DAKRIOZISTEKTOMIA	3	1.361,00	OFTALMOLOGIA
BETSAREAREN ERORTZEA	1	3.316,00	OFTALMOLOGIA
UMETOKIKO LESIOA (MIOMA) SUNTSITZEA	1	2.950,51	GINEKOLOGIA
ABDOMEN BARRUKO BENA-ZIRKULAZIOA DESBIDERATZEA	7	5.372,71	BIHOTZEKO KIRURGIA
HEMORROIDEEN ESZISIOA	1	1.005,00	KIRURGIA OROKORRA
HESTEAREN ESZISIO PARTZIALA EDO OSOA	2	7.469,93	KIRURGIA OROKORRA
KRISTALINOA ATERATZEA + BBL	6	1.349,00	OFTALMOLOGIA
EHUNA ERAUZI EDO SUNTSITZEA	1	1.905,00	KIRURGIA OROKORRA
KRISTALINOA ATERATZEA + BBL	1	1.349,00	OFTALMOLOGIA
FINKATZEKO MATERIALA ATERATZEA	4	2.179,00	KOT
GASTREKTOMIA OSOA	1	5.082,00	KIRURGIA OROKORRA
MOLTENO BALBULA JARTZEA	2	3.291,00	OFTALMOLOGIA
HEZURRAREN EBAKETA, ESZISIOA ETA ZATIKETA (7 IZAN EZIK)	1	4.892,00	KOT
LARRUAZAL MENTUAK	3	9.827,00	DERMATOLOGIA
ARTERIA BARNEKO IRRADIAZIO HEPATIKOA	7	3.719,57	KIRURGIA OROKORRA
LAPAROTOMIA	2	4.800,49	KIRURGIA OROKORRA
KARPOKO KANALA BERRIREKITZEA	2	808,87	KOT
LOBEKTOMIA HEPATIKOA	1	6.465,00	KIRURGIA OROKORRA
MASTEKTOMIA	1	3.856,00	GINEKOLOGIA

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
MASTOIDEKTOMIA	1	2.269,00	ORL
MIRINGOPLASTIA EDO TINPANOPLASTIA SINPLEA	2	1.262,00	ORL
MIRINGOTOMIA HODIA SARTURIK	1	816,00	ORL
NEFREKTOMIA ERABATEKOA	5	6.824,00	NEFROLOGIA
BEGIZ KANPOKO MUSKULUETAKO EBAKUNTZAK	1	955,00	OFTALMOLOGIA
BESTELAKO ESZISIO LOKALA EDO SUNTSIKETA	4	2.720,00	KIRURGIA OROKORRA
BESTELAKO TINPANOPLASTIA	1	1.951,00	ORL
PARATIROIDEKTOMIA	4	3.115,00	ORL
ERDITZEA	1	1.814,00	GINEKOLOGIA
PERIKARDIEKTOMIA	1	6.719,00	BIHOTZEKO KIRURGIA
PIELOTOMIA ETA PIELOSTOMIA	4	5.105,00	NEFROLOGIA
SUDURREKO POLIPEKTOMIA	1	1.200,00	ORL
PROTESI KOKLEARRA, ERREHABILITAZIOAREKIN	4	5.910,00	ORL
PROSTATEKTOMIA ERRETROPUBIKOA	2	3.630,00	UROLOGIA
PROSTATEKTOMIA TRANSURETRALA ETA SUPRAPUBIKOA	1	2.949,00	UROLOGIA
KERATOPLASTIA SARKORRA	2	969,75	OFTALMOLOGIA
HAUSTURA IREKIAREN ERREDUKZIOA FINK. BIDEZ	1	3.932,00	KOT
HAUSTURA ITXIAREN ERREDUKZIOA FINK. BIDEZ	2	3.249,50	KOT
ABDOMEN-PARETAKO BESTELAKO ETENAREN KONPONKETA	5	3.432,00	KIRURGIA OROKORRA
ZILBORREKO ETENAREN KONPONKETA	3	2.494,17	KIRURGIA OROKORRA
BELAUNEKO LOKAILUEN KONPONKETA	1	4.058,00	KOT
IZTAI-ETENAREN KONPONKETA ALDEBATEKOA	3	1.486,00	KIRURGIA OROKORRA
ALDAKA BERRIA JARTZEA	3	7.388,00	KOT
HESTEAREN ERRESEKZIOA ETA BERREGITEA	1	7.603,00	KIRURGIA OROKORRA
BIRIKAREN ERRESEKZIO SEGMENTARIOA	1	7.816,00	PNEUMOLOGIA
MASKURIKO LESIOAREN ERRESEKZIO TRANSURETRALA	2	2.949,00	UROLOGIA
SIALODENEKTOMIA	1	1.422,00	ORL
TIROIDEKTOMIA	1	4.991,00	KIRURGIA OROKORRA
MIAKETARAKO TORAKOTOMIA	1	6.575,00	PNEUMOLOGIA
BALBULARRAK	4	13.219,19	BIHOTZEKO KIRURGIA
BASKULARRAK ETA ANEURISMAK	8	9.681,92	BIHOTZEKO KIRURGIA
BITREKTOMIA	2	2.359,50	OFTALMOLOGIA
PROSTATAKO BRAKITERAPIA, 17 VLDR	1	4.529,00	UROLOGIA
KARTZINOMA BASOZELULAR ERTAINA	4	568,00	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA BASOZELULAR TXIKIA EDO SINPLEA	5	568,00	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA ESPINOZELULAR HANDIA EDO KONPLEXUA	2	568,00	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA ESPINOZELULAR ERTAINA	3	568,00	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA ESPINOZELULAR TXIKIA EDO SINPLEA	2	568,00	DERMATOLOGIA
MUSK. ZINTZILIKARIOAK + LARRUAZAL MENTUA	1	9.482,47	DERMATOLOGIA
CROSS-LINKING ALDE BAKARREKOA	1	568,00	DERMATOLOGIA
HATZ KAKOTUA	1	568,00	KOT
EPIDUROLISIA	1	568,00	KOT
AZTERKETA OFTALMOLOGIKOA EBAKUNTZA-GELAN	1	568,00	OFTALMOLOGIA
NEBOAK KENTZEA (2 BAINO GEHIAGO)	1	568,00	DERMATOLOGIA
TUMORE ONBERA ERTAINA ERAUZTEA	1	568,00	DERMATOLOGIA

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
TUMORE ONBERA TXIKIA ERAUZTEA	2	492,54	DERMATOLOGIA
FRIEDERICH	1	568,00	DERMATOLOGIA
BEGI BARNEKO LENTEAREN INPLANTE SEKUNDARIOA	1	1.880,00	OFTALMOLOGIA
URETERREKO KATETERRA ALDATZEA	4	568,00	NEFROLOGIA
IRISPIDE BENOSOA ALDATZEA EDO KENTZEA	4	568,00	KIRURGIA OROKORRA
TITIBURUKO AREOLAREN BERREGITE KONPLEXUA	1	568,00	DERMATOLOGIA
FRESKATZEA ETA JOSTURA MEDIKOA	4	568,00	DERMATOLOGIA
FRESKATZEA ETA JOSTURA TXIKIA	2	568,00	DERMATOLOGIA
EHUN BIGUNETAKO TUMOREAREN ERRESEKZIO SINPLEA	1	568,00	DERMATOLOGIA
ESTIMULAZIO MEDULARRERAKO ELEKTRODOA KENTZEA	2	568,00	KOT
RIZOLISIA	5	568,00	KOT
ABLAZIOA KATETERRAREKIN	8	17.966,00	BIHOTZECO KIRURGIA
GIBELEKO BIOPSIA ITXIA	20	1.361,00	KIRURGIA OROKORRA
BENTRIKULUKO PAUSO-MARKAGAILUA PARATZEA	23	2.401,30	BIHOTZECO KIRURGIA
ANGIOPLASTIA TRANSLUMINAL KORONARIOA	10	5.341,85	BIHOTZECO KIRURGIA
METASTASIAREN ERRADIODIRURGIA	1	9.004,00	NEUROKIRURGIA

2.2.- 2012. urtea (urtarrila-abuztua): 234 ebakuntza, guztira.

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
ANGIOGRAFIA DIGITAL TERAPEUTIKOA	7	5.856,32	BIHOTZECO KIRURGIA
ARTRODESI BERTEBRALA	1	7.414,77	KOT
BY PASS GASTRIKOA	2	12.397,56	KIRURGIA OROKORRA
OHIKO ZESAREA	1	3.921,92	GINEKOLOGIA
Parkinsoneko kirurgia eta inplantea	2	20.971,52	NEUROKIRURGIA
TRATAMENDURAKO GAILUA JARTZEA	1	1.708,02	KOT
KRANEOTOMIA	1	12.692,47	NEUROKIRURGIA
KRANEOZ KANPOKO BENTRIKULUAREN DERIBAZIOA	1	15.122,43	BIHOTZECO KIRURGIA
ERROTULA EGONKORTZEA	1	4.155,39	KOT
KRISTALINOA ATERATZEA + BBL	1	690,69	OFTALMOLOGIA
EHUNA ERAUZI EDO SUNTSITZEA	1	1.950,72	KOT
MOLTENO BALBULA JARTZEA	1	3.369,98	OFTALMOLOGIA
LARRUAZAL MENTUAK	1	10.062,85	DERMATOLOGIA
ARTERIA BARNEKO IRRADIAZIO HEPATIKOA	2	5.924,85	KIRURGIA OROKORRA
LAPAROTOMIA	1	5.003,26	KIRURGIA OROKORRA
NEFREKTOMIA ERABATEKOA	1	6.987,77	NEFROLOGIA
BIHOTZECO ODOL-HODIEN EBAKUNTZA KATETERISMORIK GABEA, EGUNEKOA	3	14.977,70	BIHOTZECO KIRURGIA
BESTELAKO ESZISIO LOKALA EDO SUNTSIKETA	14	2.685,81	KOT
PROTESI KOKLEARRA, ERREHABILITAZIOAREKIN	8	6.051,84	ORL
KERATOPLASTIA SARKORRA	2	1.624,56	OFTALMOLOGIA
HAUSTURA IREKIAREN ERREDUKZIOA FINK. BIDEZ	1	4.571,14	KOT
ABDOMEN-PARETAKO BESTELAKO ETENAREN KONPONKETA	1	3.514,36	KIRURGIA OROKORRA
BELAUNEKO LOKAILUEN KONPONKETA	1	4.155,39	KOT
BELAUN BERRIA JARTZEA, OSORIK	2	7.934,97	KOT

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
BALBULARRAK	1	13.584,37	BIHOTZEKO KIRURGIA
KORNEAKO BIOPSIA - ZIRI ERAKO ESZISIOA	1	581,62	OFTALMOLOGIA
KARTZINOMA BASOZELULAR ERTAINA	1	581,62	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA BASOZELULAR TXIKIA EDO SINPLEA	1	581,62	DERMATOLOGIA
MUSK. ZINTZILIKARIOAK + LARRUAZAL MENTUA	1	9.710,05	KIRURGIA OROKORRA
BEGI BARNEKO LENTEAREN INPLANTE SEKUNDARIOA	1	1.925,11	OFTALMOLOGIA
ESKU-HARTZE BEREZIA	1	581,62	KOT
IRRATI-FREKUENTZIA	6	581,62	KOT
RESURFACING TXIKIA CO2-ZKO LASERRAREKIN	2	574,81	DERMATOLOGIA
ABLAZIOA KATETERRAREKIN	1	18.397,18	BIHOTZEKO KIRURGIA
GIBELEKO BIOPSIA ITXIA	1	1.393,66	KIRURGIA OROKORRA
BENTRIKULUKO PAUSO-MARKAGAILUA PARATZEA	13	2.589,53	BIHOTZEKO KIRURGIA
ANGIOGRAFIA DIGITAL TERAPEUTIKOA	1	5.924,85	BIHOTZEKO KIRURGIA
BEHEKO GORPUTZ-ADARRAREN ANPUTAZIOA	1	4.276,22	KOT
ANGIOGRAFIA DIGITAL TERAPEUTIKOA	8	5.729,00	BIHOTZEKO KIRURGIA
DIALISIRAKO ARTERIOBENOSTOMIA	5	1.672,19	KIRURGIA KARDIOBASK.
OINAREN ETA ORKATILAREN ARTRODESIA	1	2.648,05	KOT
ARTRODESI INTERFALANGIKOA	1	2.766,84	KOT
ARTRODESI BERTEBRALA	1	7.241,00	KOT
ARTROSKOPIA	1	2.091,01	KOT
GIBELEKO BIOPSIA ITXIA	2	1.393,66	KIRURGIA OROKORRA
OHIKO ZESAREA	1	3.921,92	GINEKOLOGIA
HESTEETAKO ESTOMA IXTEA	1	3.211,26	KIRURGIA OROKORRA
BETAZALEKO KIRURGIA	3	544,78	OFTALMOLOGIA
ZISTEKTOMIA OSOA	1	11.619,32	UROLOGIA
TRATAMENDURAKO GAILUA JARTZEA	2	1.708,02	KOT
KRANEOTOMIA	1	12.692,47	NEUROKIRURGIA
BETSAREAREN ERORTZEA	3	3.395,57	OFTALMOLOGIA
ORNOARTEKO DISKOA SUNTSITZEA	1	5.833,72	KOT
ABDOMEN BARRUKO BENA-ZIRKULAZIOA DESBIDERATZEA	1	5.924,85	BIHOTZEKO KIRURGIA
AKILESEN TENDOIA LUZATZEA	1	723,46	KOT
ESPLENEKTOMIA	1	7.505,92	KIRURGIA OROKORRA
BELAUNA EGONKORTZEA, KONPONKETA	1	4.155,39	KOT
HEMORROIDEEN ESZISIOA	1	1.029,11	KIRURGIA OROKORRA
HESTEAREN ESZISIO PARTZIALA EDO OSOA	1	7.512,93	KIRURGIA OROKORRA
KRISTALINOA ATERATZEA + BBL	2	1.381,38	OFTALMOLOGIA
EHUNA ERAUZI EDO SUNTSITZEA	1	1.950,72	DERMATOLOGIA
FINKATZEKO MATERIALA ATERATZEA	1	2.231,30	KOT
ARTERIA BARNEKO IRRADIAZIO HEPATIKOA	3	5.924,85	KIRURGIA OROKORRA
BIRIKAKO LOBEKTOMIA	1	7.355,39	PNEUMOLOGIA
MASTOIDEKTOMIA	1	2.323,46	ORL
MIRINGOPLASTIA EDO TINPANOPLASTIA SINPLEA	2	1.292,28	ORL
MIRINGOTOMIA HODIA SARTURIK	2	835,58	ORL
NEFREKTOMIA ERABATEKOA	5	6.987,77	NEFROLOGIA
BESTELAKO ESZISIO LOKALA EDO SUNTSIKETA	5	2.785,28	KIRURGIA OROKORRA
BESTELAKO TINPANOPLASTIA	1	1.997,81	ORL

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
PARATIROIDEKTOMIA	1	3.645,44	KIRURGIA OROKORRA
PROTESI KOKLEARRA, ERREHABILITAZIOAREKIN	2	6.051,84	ORL
PROSTATEKTOMIA ERRETROPUBIKOA	1	3.717,11	UROLOGIA
ABDOMEN-PARETAKO BESTELAKO ETENAREN KONPONKETA	3	3.514,36	KIRURGIA OROKORRA
UZKIKO FISTULAREN KONPONKETA	1	803,84	KIRURGIA OROKORRA
ZILBORREKO ETENAREN KONPONKETA	2	2.298,62	KIRURGIA OROKORRA
IZTAI-ETENAREN KONPONKETA ALDEBATEKOA	3	1.140,90	KIRURGIA OROKORRA
ALDAKA BERRIA JARTZEA	1	7.565,31	KOT
BELAUN BERRIA JARTZEA, OSORIK	1	7.934,97	KOT
HESTEAREN ERRESEKZIOA ETA BERREGITEA	1	7.785,47	KIRURGIA OROKORRA
MASKURIKO LESIOAREN ERRESEKZIO TRANSURETRALA	1	3.019,78	UROLOGIA
BALBULARRAK	3	13.933,21	BIHOTZEKO KIRURGIA
BASKULARRAK ETA ANEURISMAK	7	10.765,30	BIHOTZEKO KIRURGIA
BITREKTOMIA	1	3.221,50	OFTALMOLOGIA
KARTZINOMA BASOZELULAR HANDIA EDO KONPLEXUA	1	581,62	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA BASOZELULAR ERTAINA	6	581,62	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA BASOZELULAR TXIKIA EDO SINPLEA	2	581,62	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA ESPINOZELULAR HANDIA EDO KONPLEXUA	1	581,62	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA ESPINOZELULAR ERTAINA	1	581,62	DERMATOLOGIA
KARTZINOMA ESPINOZELULAR TXIKIA EDO SINPLEA	3	581,62	DERMATOLOGIA
TUMORE ONBERA TXIKIA ERAUZTEA	1	581,62	DERMATOLOGIA
KORTIKOIDEEN INFILTRAZIOA	2	581,62	KOT
URETERREKO KATETERRA ALDATZEA	2	581,62	NEFROLOGIA
IRISPIDE BENOSOA ALDATZEA EDO KENTZEA	2	581,62	KIRURGIA KARDIOBASK.
FRESKATZEA ETA JOSTURA MEDIKOA	1	581,62	DERMATOLOGIA
ERRESEKZIOA + MENTU BIDEZ BERREGITEA	1	15.647,73	DERMATOLOGIA
ESTIMULAZIO MEDULARRERAKO ELEKTRODOA KENTZEA	1	581,62	KOT
ABLAZIOA KATETERAREKIN	4	18.397,18	BIHOTZEKO KIRURGIA
GIBELEKO BIOPSIA ITXIA	13	1.393,66	KIRURGIA OROKORRA
BENTRIKULUKO PAUSO-MARKAGAILUA PARATZEA	6	2.019,83	BIHOTZEKO KIRURGIA
ANGIOPLASTIA TRANSLUMINAL KORONARIOA	8	5.757,94	BIHOTZEKO KIRURGIA

3.- San Miguel klinikarako deribazioak, gainkarga dela-eta (itxarote-zerrenda) (ebakuntza mota, espezialitatea, kopurua eta ordaindutako batez besteko prezioa jaso dira):

3.1.- 2011. urtea: 1.203 ebakuntza, guztira.

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
ARTROSKOPIA EDOZEIN GILTZADURATAN 00	2	1.475,27	KOT
1/2 ARTROSKOPIA DIAGNOSTIKOA 00	1	802,00	KOT
KARPOKO ARTRODESIA 00	5	2.050,88	KOT
BELAUNEKO ARTRODESIA 00	1	2.137,21	KOT
ESKUKO ARTRODESI INTERFALANGIKOA 00	2	1.538,16	KOT
ARTROSKOPIA - LOTAILUAK 00	24	2.913,44	KOT
ARTROSKOPIA - MENISZEKTOMIA ETA LOTAILUAK 00	90	2.897,25	KOT
ARTROSKOPIA EDOZEIN GILTZADURATAN 00	8	1.967,03	KOT
SORBALDAKO ARTROSKOPIA TERAPEUTIKOA 00	37	1.967,03	KOT
BELAUNEKO ARTROSKOPIA	1	2.913,45	KOT
BELAUNEKO ARTROSKOPIA 00	4	2.913,44	KOT
DE QUERVAIN 00	3	1.103,68	KOT
ERPE ERAKO BEHATZA % 50 00	116	470,54	KOT
HEZUR-MUINAREN BARRUKO ILTZEA 00	1	3.566,15	KOT
EPIKONDILITISA 00	5	1.103,68	KOT
EGONALDIAREN ARABERA FAKTURATUTAKO EBAKUNTZAK	24	880,96	KOT
HALLUX VALGUS 00	58	1.103,68	KOT
PEDIKULUEN MENTUAK EDO ZINTZILIKARIOAK 00	1	3.064,30	KOT
BARIZEAK LOTU ETA ERAUZTEA MI00	381	1.275,58	KIRURGIA KARDIOBASK.
GARBIKETA ARTROSKOPIKOA (ARTROSKOPIA BIDEZKOA) 00	6	2.913,44	KOT
SORTZETIKO LOKADURAREN TRATAMENDU ODOLGABEA 00	1	4.100,10	KOT
KUBITALAREN NEUROLISIA 00	8	2.279,71	KOT
HATZEKO PROTESIA 00	2	3.790,78	KOT
BELAUNEKO PROTESIA 00	48	4.585,00	KOT
ALDAKAKO PROTESI OSOA 00	1	5.149,31	KOT
MAILU GISAKO BEHATZAREN KONPONKETA 00	1	880,35	KOT
BELAUNEKO SINOBEKTOMIA 00	3	3.269,03	KOT
EHUN BIGUNETAKO TUMOREAK 00	56	926,27	KOT
KARPOKO KANALA 00	67	880,50	KOT
BARIZEAK ALDE BAKARREAN 00	2	1.278,94	KIRURGIA KARDIOBASK.
EBAKUNTZA BEREZIA 00	1	545,83	KOT
D'QUERVAIN EDO POLEA IREKITZEA	5	1.103,79	KOT
ERPE ERAKO BEHATZAK, ALDE BAKARREAN	11	880,39	KOT
INFILTRAZIOA	192	61,47	KOT
EBAKUNTZA BEREZIA 00	31	404,97	KOT
EHUN BIGUNETAKO TUMOREAK 00	4	880,46	KOT

3.2.- 2012. urtea (urtarrila-iraila): 256 ebakuntza, guztira.

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
OMK, ERROTULA % 50 00	2	272,92	KOT
FLEXOREEN ZORROA IREKITZEA 00	1	1.103,68	KOT
KARPOKO ARTRODESIA 00	2	2.050,88	KOT
ARTROSKOPIA - LOTAILUAK 00	13	2.801,38	KOT
ARTROSKOPIA - MENISZEKTOMIA ETA LOTAILUAK 00	85	2.913,44	KOT
SORBALDAKO ARTROSKOPIA 00	1	1.967,03	KOT
SORBALDAKO ARTROSKOPIA TERAPEUTIKOA 00	13	1.967,03	KOT
BELAUNeko ARTROSKOPIA	1	2.913,45	KOT
BELAUNeko ARTROSKOPIA 00	1	2.913,44	KOT
ERPE ERAKO BEHATZA % 50 00	30	498,87	KOT
EPIKONDILITISA 00	1	1.103,68	KOT
HALLUX VALGUS 00	20	1.103,68	KOT
GARBIKETA ARTROSKOPIKOA (ARTROSKOPIA BIDEZKOA) 00	3	2.913,44	KOT
KUBITALAREN NEUROLISIA 00	4	2.279,71	KOT
BELAUNeko PROTESIA 00	4	4.585,00	KOT
OMK, KARPIANOAK ETA METAKARPIANOAK 00	1	545,83	KOT
OMK, BESTE BATZUK 00	2	545,83	KOT
OMK, KARPIANOAK ETA METAKARPIANOAK 00	3	545,83	KOT
BELAUNeko SINOBEKTOMIA 00	1	3.922,84	KOT
EHUN BIGUNETAKO TUMOREAK 00	2	880,50	KOT
KARPOKO KANALA 00	58	880,50	KOT
D'QUERVAIN EDO POLEA IREKITZEA	1	1.103,68	KOT
ERPE ERAKO BEHATZAK, ALDE BAKARREAN	2	880,35	KOT
EBAKUNTZA BEREZIA 00	5	545,83	KOT

4.- San Miguel Klinikarako deribazioak, eskari-ari aurre egiteko unean uneko gabeziak direla-eta (ohe edo ebakuntza-gelen falta edo patologia mota):

4.1.- 2011. urtean: 7 ebakuntza, guztira.

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
ARTRODESI BERTEBRALA 00	1	5.134,72	KOT
KOLEZISTEKTOMIA 00	1	2.572,01	KOT
E.R.C.P. 00	1	3.317,13	KIRURGIA OROKORRA
ESKUINEKO HEMIKOLEKTOMIA 00	1	4.771,31	KIRURGIA OROKORRA
HERNIORRAFIA KRURALA 00	2	2.203,80	KIRURGIA OROKORRA
MIAKETARAKO LAPAROTOMIA 00	1	2.827,76	KIRURGIA OROKORRA

4.2.- 2012. urtea (urtarrila-iraila): 2 ebakuntza, guztira.

EBAKUNTZA MOTA	Kop.	BATEZ BESTEKO PREZIOA	ESPEZIALITATEA
ARTROSKOPIA - MENISZEKTOMIA ETA LOTAILUAK 00	1	2.913,44	KOT
HATZEKO PROTESIA 00	1	3.800,00	KOT

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Moderna Fundazioari funts publikoak emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak Moderna Fundazioari funts publikoak emateari buruz egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak Moderna fundazioaren inguruko zenbait gorabehera ekonomikori buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-172), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuaren ekarpenak 2012ko ekitaldian fundazioaren aurrekontuan egiten duen portzentajea dela-eta, esan behar da Nafarroako Gobernuak gehienez ere 796.588 diru-laguntza emateko konpromisoa daukala gaur egun. Zenba-

teko hori fundazioaren abuztuko aurrekontu doituaren % 88 da.

Moderna fundazioaren zuzendari nagusiari eta zuzendariordeari 2012ko ekitaldian funts publikoetatik ordaindu zaien soldata-portzentajeari dagokionez, esan behar da diru-laguntzaren xedea fundazioaren defizit osoa estaltzea dela; diruz lagundutako gastuaren portzentajearen baitan ez dira inola ere bereizten langileria gastuak eta fundazioaren gainerako gastuak. Portzentajea, beraz, aurreikusitako gastuaren % 88 da, aurreko erantzunean adierazi bezala.

Azkenik, Moderna fundazioak 2012an jasotako diru-laguntza transferentzia arruntan eta kapital-transferentzien artean nola banatu den galdetu baita, hona hemen 796.588 euroen banaketa: 777.888 € transferentzia arruntetan eta 18.700 € kapital-transferentzietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, 2010-2014 bosturtekoan Estatuari eginiko diru-ekarpena kalkulatzeko metodologiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana 2010-2014 bosturtekoan Estatuari eginiko diru-ekarpena kalkulatzeko metodologiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parla-

Estatuaren gastuen aurrekontu osoa PG_E

– Nafarroak bere gain hartu dituen zamei dagozkien esleipenak CE_{TC}

= Bere gain hartu ez dituen zamak CNE_E

Ekarpen osoa **$i \times CNE_E$**

– Ordainak

– hitzartu gabeko tributuengatik $i \times ITNC_E$

– hitzartu gabeko beste diru-sarrera batzuegatik $i \times ITNC_E$

– aurrekontu-defizitagatik $i \times D_E$

– hitzartutako zuzeneko zergengatik IDC

Ekarpen likidoa **$i \times (CNE_E - ITNC_E - OINC_E - D_E) - IDC$**

Oinarri-urteko ekarpenaren kalkuluan abiapuntutzat hartzen da, ekarpen hori zein urtetan kalkulatu den, urte hartako Estatuaren gastuen aurrekontua. Aurrekontu horren guztizko zenbatekoari Foru Komunitateak bere gain hartutako eskumenerako diru-esleipenen guztizko zenbatekoa kentzen zaio, zerbitzuak eskualdatzeko errege dekretuetan, 1841eko Lege Itunduan eta xedapen osagarrietan ezarritakoari jarraituz. Horrela kalkulatuak emaitza izanen da Nafarroak bere gain hartu ez dituen eta ordaintzen lagundu behar duen zamen zenbatekoa.

Nafarroak bere gain hartu ez dituen zamak: halakotzat jotzen dira Nafarroak benetan baliatzen ez dituen eskumenei dagozkien Estatuaren zamak. Betiere, Nafarroak bere gain hartu ez dituen zamatzat jotzen dira, besteak beste, honako hauek:

mentari Aitziber Sarasola Jaca andreak 2010-2014 bosturtekoan Estatuari eginiko diru-ekarpena kalkulatzeko metodologiari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-159), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

Bosturteko oinarri-urteko ekarpen likidoa, bi administrazioek hala adostuta, bost urtean behin zehazten da 1990eko Hitzarmenaren indarraldiko lehenbiziko urtetik hasita. Egozpen-indizea aplikatzen zaio Foru Komunitateak bere gain hartu ez dituen Estatuaren zamen eta dagozkien ordainen guztizko zenbatekoari. Honela laburbil daiteke kalkulua, eskema gisa:

a) Lurraldean arteko konpentsazio funtsei dagozkien diru-kopuruak.

b) Erakunde publikoentzako transferentziak edo diru-laguntzak, haien erabiltzen dituzten eskumenak Nafarroako Komunitateak erabiltzen ez dituen heinean.

c) Estatuaren zor guztien interesak eta amortizazio-kuotak.

Ekarpen osoa: Nafarroak bere gain hartu ez dituen Estatuaren zamei egozpen-indizea aplikatuz kalkulatu da.

Funtsean, Nafarroako errenta erlatiboaren arabera zehazten da egozpen-indizea. % 1,6ko indizea finkatu da; Nafarroak portzentaje horretan laguntzen du bere gain hartu ez dituen eskumenei dagozkien Estatuaren zamei eusten.

Ordainak: ekarpen osotik honako ordain hauek kentzen dira, oinarri-urteko ekarpen likidoaren zenbatekoa kalkulatzeko:

a) Hitzartu gabeko diru-sarreraren zati egozgarria, hitzartu gabeko guztizko diru-sarrerari egotzen-indizea aplikatuz.

b) Estatuaren tributuz kanpoko diru-sarreraren zati egozgarria, tributuz kanpoko guztizko diru-sarrerari egotzen-indizea aplikatuz.

c) Estatuaren Aurrekontu Orokorretako defizitaren zati bat, aurrekontu-defizitari egotzen-indizea aplikatuz.

d) Zuzeneko zerga hitzartuengatik ordaina: Nafarroan Estatuko Administrazio Orokorren menpean ari diren funtzionario eta lan- edo administrazio-kontratadunen ordainsarietako PFEZeko atxikipenak, eta kapital higigarriaren etekinetan Estatuko Administrazio Orokorren dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak.

Metodologia hori erabiliz Koordinazio Batzordeak zehazten du oinarri-urteko diru-ekarpena, eta bi administrazioei aurkezten die. Administrazio bakoitzeko sei ordezkari osatzen dute batzordea.

Hala, 2011ko otsailaren 16an Koordinazio Batzordeak 2010 oinarri-urteko diru-ekarpena zehaztea erabaki zuen, eta gero ekarpen hori Nafarroako Gobernuaren 2011ko otsailaren 28ko Erabakiaren bidez onetsi zen eta Parlamentuari jakinarazi zitzaion.

Diru-ekarpena zehazteko metodologia eta prozedura arauturik daude Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen II. tituluko I. eta II. kapituluetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloan erabiltzen diren testuliburuaren zerrendari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloan erabiltzen diren testuliburuaren zerrendari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz andreak Nafarroako D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkun-

tzako Gizarte Zientzien arloan erabiltzen diren testuliburuaren zerrendari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/pes-00136), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenaren arabera:

Eskatutako testuliburu-zerrenda dakarten dokumentuak erantsi dira (gaztelaniazkoa eta euskarazkoa).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 13an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

Galdera, jakitekoa aurreikusita ote dagoen kalteordainik ematea eraikuntza enpresari, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiko lanen etetea dela-eta.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa aurreikusita ote dagoen kalteordainik ematea eraikuntza enpresari, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiko lanen etetea dela-eta. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 26ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Populares de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko pabiloiaren obrak geldiarazteak ekarriko lituzkeen kostuei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES 174), hau erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

Lehenik esan behar da gaur egun EZ dagoela Navarra Arena pabiloian egiten ari diren obrak geldiarazteko asmorik.

Bigarrenik, gaur egun hiru laguntza-kontratu eta bi obra-kontratu daude indarrean proiektuaren garapenerako, eta zenbait lote daude lizitatzeko (kirol federazioentzako tokia egokitzea, tresneria, markagailuak, edukiera aldatzeko gortinak eta abar). Obrak geldiarazteak, beraz, proiektua garatzeko indarrean dauden administrazio-kontratu guztiak etetea ekarriko luke.

Lanak geldiaraziko balira, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 109. artikuluan arautzen da nola eten administrazio-kontratuak.

Administrazioak kontratuak eten nahiko balitu, interes publikoko arrazoiengatik edo ordainketa 4 hilabete baino gehiago atzeratzeagatik bakarrik egin ahalko luke. Atzerapenik izan ez denez, Administrazioak interes publikoa frogatu beharko luke kontratuak etetea erabaki ahal izateko.

Etetea erabakiz gero, akta eginen da eta unitate kudeatzaileko teknikari batek eta kontratistak sinatuko dute. Kontratua etetearen arrazoiak eta

ondorioak azalduko dira akta horretan. Obraren zuzendaritzak ere akta sinatuko du. Aktaren eranskin gisa, etendako zatiaren edo zatien azalpena, burututako obraren neurketa, eta obretan metatu diren eta obra horietan bakarrik erabil daitezkeen materialen zerrenda gehituko dira.

Etetea erabakita, Administrazioak kontratistari ordainduko dizkio benetan jasan dituen kalteak eta galerak. Ezin da alde zuzen zehaztu zenbaterako kalte-ordaina eman beharko litzatekeen.

Kalte eta galerak aintzat har daitezkeen, behar bezala frogatu behar da administrazio kontratatzaileari egotzi ahal zaion jarduketaren baten ondorioz kontratistak benetako kaltea (sortutako kaltea edo lortu gabeko irabazia) izan duela bere ondarean eta ez zegoela beharturik kalte hori jasatera. Frogaren zama (kaltea frogatu beharra) kontratistak hartu behar du.

Lortu gabeko irabaziari dagokionez, jurisprudentziak dio ez dela nahikoa irabazteko aukera abstraktu edo teoriko bat galtzea; aitzitik, behar bezala frogatu behar da mozkin ekonomiko jakin bat lortzeko aukera ziurra galdu dela Administrazioaren jardunaren ondorioz. Hitz batez, ez dira kontuan hartuko behar adina egiaztatu gabeko kalteak, balizko kalteak, litezkeenak edo etorkizunekoak.

“Benetan jasandako kalteak” terminoak zer bilitzen duen argitze aldera, jurisprudentziak azaltzen du hasiera batean ez dagoela kalte-galera ordaingarrien kontzeptuaren mugarik, frogatzen baldin bada kalte horiek benetan eta egiaz gertatu direla eta etetearen ondorio izan direla.

Albora uzten dira kalte espiritual eta moralak; horiek Administrazio Publikoaren kontratuz kanpoko erantzukizunaren arloan soilik hartzen dira aintzat (ondare-erantzukizunaren erreklamazioan), baina ez dira aplikatzen kontratuzko erantzukizuna aztergai denean, kasu honetan bezala (Auzitegi Gorenaren 2005eko azaroaren 15eko eta 2008ko maiatzaren 14ko epaiak, besteak beste). Halaber, jurisprudentziako doktrinak dioenez (Auzitegi Gorenaren 2008ko apirilaren 24ko Epaiak, besteak beste), kalte-ordainean sartu behar diren kontzeptuak, funtsean, obraren aurrekontua kalkulatzeko kontuan hartzen diren elementu berak dira. Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak ez

ditu elementu horiek zehazten, bai ordea Estatuko legeriak:

A) Zuzeneko kostuak

Langileriaren gastuak.

Makineria.

Materialak.

B) Zeharkako kostuak

Obra-lekuan bulegoak instalatzeko gastuak, eta biltegiak, lantegiak, laborategiak edo behargin, teknikari eta administrarientzako behin-behineko pabiloiak eraikitzekeko gastuak, betiere gastu horiek ez badaude jasorik obra-unitateka edo partida zenbatetsien arabera baloratutako aurrekontuan. Hau da, obrak egiteko aurrekontu arruntetik kanpoko gastuak dira, baina nola edo hala obrei ego-tzi ahal zaizkie.

C) Gastu orokorrak

Obrak egiten ari ez denean ere eraikuntza-enpresak egin ohi dituen gastuak dira. Obra-kontratuetan badutela eragina irizten zaio, gastu orokor horiek, kontratazio administratiboari buruzko araudian xedatuta dagoen bezala, obra egiteko aurrekontuaren % 13 - % 17 bitarteko portzentajea aplikatuz kalkulatzeko direlako. Egitura-gastu oroko-

rrak lirateke (taratean publizitateagatiko kostu komertzialak, administrazio orokorrekoak, hala nola bulegoko materiala, langileen kudeaketa, zerbitzu juridiko eta teknikoak, ikerketa eta garapen arloko kostuak, erantzukizun zibileko aseguruak), eta horiei gehitu behar zaizkie finantza-gastuak, zerga-zamak (BEZa izan ezik) eta legez ezarritako tasak.

Labur azalduta, EZ dago obrak geldiarazteko asmorik, eta proposamen hori baloratuko balitz ez litzateke erraza izanen hura gauzatu eta kalkulatzeari. Lehenik, erabakia interes publikoagatik hartu dela justifikatu beharko litzateke, eta, obra aurreratu dagoenez, korapilatsua litzateke defentsa hori. Gainera, txosten honetan adierazi den bezala, sortutako kalte-galerengatik kontratistek eman beharreko kalte-ordainaren kostuak kalkulatzeko zailtasunak berriro ere erakusten digu ez dela komeni horrenbestearainoko neurria hartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Navarro Villoslada Institutuan irakaslana ziurtatze aldera egin beharreko presako obrak direla-eta institutuko eskola kontseiluak egindako eskariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nekane Pérez Irazabal andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Navarro Villoslada Institutuan irakaslana ziurtatze aldera egin beharreko presako obrak direla-eta institutuko eskola kontseiluak egindako eskariari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko abenduaren 10eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak galdetu du, idatziz erantzuteko galderan, ea Hezkuntza Departamentuak ba al duen asmorik Navarro Villoslada Institutuko teilatu, leiho eta terrazetan eta berokuntzan egin beharreko obrak direla-eta

institutuko eskola kontseiluak egindako eskaera onartzeko (8-12/PES-00177). Galdera horri dagokionez hau erantzun du Nafarroako Gobernuoko Hezkuntzako kontseilariak, Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuak egindako txostena ikusirik:

Hezkuntza Departamentua Navarro Villoslada BHIko eraikinaren eta instalazioen egoeraren jakitun da.

Hezkuntza Departamentuak ahalik eta azkarren erantzunen die eraikina eta bertako instalazioak mantendu eta hobetzeko beharrei, aurrekontu-baliabideen arabera, eta ikastetxe berekien behar orokorreki presaren, segurtasunaren, indarreko araudia betetzearen, biziegokitasunaren, energia-eraginkortasunaren eta konfortaren irizpideak aplikatuta zehaztu behar den lehentasunarekin.

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

